

OIHANEAN SENTITU

**bideak
bertze
ipuin**



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

Reyno de
Navarra



Nafarroa
Erresuma



kontatu bertze bat



Baztango
Udala

Aurkezpena

'OIHANEAN SENTITU' Baztan-Bidasoa modu ezberdinean ezagutzeko eta sentitzeko proposamen bat da. Egitasmo honetan gure eskualdeko natur baliabideak (oihanak eta errekek, batez ere) eta kultur baliabideak (herri istorioak, mitologia, sinismenak ...) uzartzen dira.

Gizakiok naturarekin harremana eta esperientzia atsegina izatea da helburu nagusia, proposatutako lekuetan liburuxka honetako ipuinen irakurketaren bidez, edo natura sentitzeko eta norberaren barnea hobeto ezagutzeko bakoitzak garatu beharreko terapien bidez. Edo, bi esperientziak batera.

Lagunekin, familiarekin, bikotearekin, edo bakarrik... **'OIHANEAN SENTITU'** naturan lasai ederrean ibiltzeko eta esperientziaz gozatzeko aukera ederra da.

Hemen aurkituko dituzun leku eta ipuin-istorio gehienak bertako biztanleek eta/edo tokiko entitateek (udalek, elkarteek...) proposatuak izan dira. Lekuak aukeratzekoan irisgarritasuna, inguruaren kontserbazioa eta eskualdeko lurralde oreka kontutan hartu dira. Ipuin-istorio gehienak bertan bilduak izan badira ere, profesional talde batek moldatuak eta egokituak izan dira, ildo amankomun bat mantentzeko eta gai ezberdinak jorratzeko asmoz. Halaxe, ipuin gutxi batzuk, bertako ezaugarri eta pasadizoetan oinarritu badira ere, asmatuak izan dira.

Proposamen honekin Baztan-Bidasoa Turismoa Elkarteak turismo arduratsu eta jasangarri baten aldeko apostua egiten du, eskualdeko hainbat tokiko entitatearekin elkarlanean, masifikazioa eta bere balio nagusiak arriskuan dituzten hainbat leku saihestuz edo leku horietatik gertu dagoen proposamen bat eginez. Zentzu honetan, elkarteak bazkideek, herritarrek eta entitateek egindako hausnarketak, ekarpenak eta laguntzak eskertu nahi ditugu.

Esku artean duzun liburuxka honek edizio murriztua du eta dirua irabazteko asmorik gabea da. Salmenta bidezko diru sarrerak edizioeko gastuetara bideratuko dira. Hala, liburuxka hau edizio digitalean aurkitzen ahal duzu: www.baztan-bidasoa.com

Esperientzia interesgarria izanen zaizuelakoan, ongi ibili!



Baztan-Bidasoa Turismoa Elkartea

LG NA 1402-2021

Ibilbideen eta lekuen kokapena



LEKUA

- 01 Txarutako erreka (Donamaria)
- 02 Sarasolako gaztainondoak (Beintza-Labaien)
- 03 Ezkurra erreka (Doneztebe)
- 04 Azkilarreko gaztainondoak (Arantzeta)
- 05 San Juan Xar iturria (Igantzi)
- 06 Argiñeneko erreka (Lesaka)
- 07 Kondengiagako Benta Beltza (Bera)
- 08 Uraundiko erreka (Zugarramurdi)
- 09 Axularren bidea (Urdazubi)
- 10 Errotako presa (Amair)
- 11 Lamiarrietako zubia (Arizkun)
- 12 Beltzuriko erreka (Lekaroz)
- 13 Mitxaurteko erreka (Berroeta)

IPIUNA

- | | |
|--------------------------------|-------|
| 'Gaua gauekoendako' | 12-15 |
| 'Gaztainondoaren hostoa' | 16-19 |
| 'Urak dakarrena urak darama' | 20-23 |
| 'Gaztain gurutzea' | 24-27 |
| 'Kapeladun gizona eta iturria' | 28-31 |
| 'Aro berri bat' | 32-35 |
| 'Gau lana' | 36-39 |
| 'Sua piztua da' | 40-43 |
| 'Gero' | 44-47 |
| 'Eman eta kendu' | 48-51 |
| 'Zapatak eta ogia' | 52-55 |
| 'Urrezko estatua-Distopia bat' | 56-59 |
| 'Haurraren pregoia' | 60-63 |

ORRIA

Ezaugarri orokorrak Aholkuak

- **HASIERA PUNTUAK:** bide guztiak herri batetik edo errepidearen puntu zehatz batetik hasi eta bukatzen dira, kotxea aparkatzeko leku egokia duena. **Ez ibili kotxearekin mendiko bide eta pistetan barna.**

- **BIDE ERRAZAK DIRA:** kasu gehienetan, beste ibilbide batzuen trazaketan eta seinalizazioan oinarritzen dira (Santiagoko Bidea, Bide Berdea, Mendiko GRak, Herri Bideak...). Ibilbide bakoitzeko fitxan “**Nola iritsi**” eta “**Seinalizazioa**” atalak aurkituko dituzu eta “**QR**” kode bat, bertan wikiloceko loturarekin. Hala ere, telefono estaldura ez dago ziurtatua leku guztietan, batez ere erreka zokoetan.

- **DISTANTZIA LABURREKOAK / DESNIBEL GUTXIKOAK:** ibilbideek gehienez **5 km-ko distantzia**, eta **150 m-ko desnibela** dute. Hala ere, zera **aholkatzen da:**

- Mendiko zapatilak edo bota arinak eraman. Motxila txiki bat.
- Ura eraman (erreketako ura ez da beti edargarria, udan batez ere).
- Lasai ibili, ibilbideaz gozatuz.

- **LEKU ZEHATZAK:** gehienetan **ipuina irakurtzeko edo oihanean sentitzeko leku zehatz bat proposatzen da**, baina ez beti: holakoetan, lekua zuk zeuk aukeratzen ahal duzu.

- **ERRESPETUZ JOKATU:** leku irisgarriak aukeratu dira, zailtasunik gabeak eta lasai ederrean ibiltzeko. Zentzu honetan, baztertu dira leku zailak, arriskutsuak edo distantzia handikoak; halaxe, Baztan-Bidasoan masifikazio arriskuan dauden leku batzuk ere saihestu dira. Baina ezin da leku guztietan “lasaitasuna” bermatu: zu bezelako bertze bisitariak, bertako herritarrak, nekazariak... egon

daitezke. Azkenean, gizakiok leku horietako legendak edo istorio bitxiak sortzen ditugu; leienda bera gizakion presentziaren adierazlea da. Lekura iritsi eta bertze norbait badago, errespetuz jokatu.



Baztan-Bidasoa

Turismo Elkartea

Gure oihanak ezagutu eta sentitu nahi badituzu, Baztan-Bidasoa Turismo Elkartek kalitatezko zerbitzu profesionala eskaintzen dizu:



APARTAMENTUAK

Angiz I-II 615 730 792
Basajaun basoa 948 928 922
Gainkoborda 637 466 107
Gure Lur 697 873 461

Sunbilla
Igantzi
Etxalar
Sunbilla

Indianoabaita I-II-III 948 599 260
Kastonea I-II 948 581 393
Mendialdea 606 431 355
Tresanea 948 450 287

Urdazubi-Urdax
Erratzu
Amaiur
Ituren



ATERPETXAK

Albergue Non Stop Inn 948 928 922
Arantzako Aterpe 948 634 179
Beintzako aterpetxea 948 450 014

Igantzi
Arantza
Beintza-Labaien

Graxiana aterpetxea 675 711 498
Lekarozko aterpea 948 581 804
Tompalenea aterpea 948 635 166

Zugarramurdi
Lekaroz
Etxalar



HOTELAK

Amezti 948 450 028
Churrut 948 625 540
Elizondo 948 580 872
Ezkurra 948 615 098

Doneztebe
Bera
Elizondo
Ezkurra

Palacio de Yrisarri 948 928 922
Posada Elbete 948 581 519
Trinkete Antxitonea 948 581 807
Urgain 948 592 063

Igantzi
Elbete
Elizondo
Oronoz-Mugairi



JATETXEA-KTABERNA

Arantzako Aterpe 948 634 179
Aritzigain 948 450 540
Bar Futbolin 948 580 683
Casino 948 581 251
Burlada 948 634 027
Donamariako Benta 948 450 708
Etxebertzekoborda 948 580 400
Herriko Ostatua 948 635 465
Jolastoki 948 928 922

Arantza
Sunbilla
Elizondo
Elizondo
Arantza
Donamaria
Elizondo
Etxalar
Igantzi

Kastonea 948 581 393
La Koxka 948 599 042
Lenkonea 948 625 540
Olari 948 452 254
Ordoki 948 453 165
Palacio de Yrisarri 948 928 922
Posada Elbete 948 581 519
Tresanea 948 450 287
Urgain 948 592 063

Erratzu
Urdazubi-Urdax
Bera
Irurita
Arizkun
Igantzi
Elbete
Ituren
Oronoz-Mugairi



KANPINAK

Ariztigain kanpina 948 450 540

Sunbilla

LANDETXEAK

Alkeberrea 948 630 540
Aroxtegi 699 022 899
Arzenea I-II 948 450 441
Ballenea 948 581 393
Baserri 618 7783 28
Eguzki 651 859 435
Ekain Xokoa I-II 649 055 225
Fuentehermosa I-II 646 189 737
Galantenea I-II 656 740 506
Gontxea 948 453 433
Iratxekoberea I-II 948 631 049
Istarbey 609 222 181
Jauregia I-II 948 585 003
Kordoa 948 453 222
Larralde 676 306 096

Bera
Sunbilla
Ituren
Erratzu
Etxalar
Erratzu
Zugarramurdi
Elizondo
Ituren
Arizkun
Bera
Elizondo
Aniz
Erratzu
Elizondo

Lartazarrea 948 393 031
Martioneko Borda I-II 948 450 554
Matxingonea I-II 948 599 240
Matxingonea I-II 649 550 568
Mikelestenea I-II-III 948 635 075
Peruarnea 948 635 174
Perugorria Berria 616 897 935
Telleri 948 634 040
Urritia 948 635 222
Urruska 626 128 719
Utxunea 609 782 309
Zapatilenea 676 791 106
Zigako Etxezuria 948 452 078
Zilbetinea 948 453 489

Arizkun
Oitz
Urdazubi-Urdax
Zoziaia
Etxalar
Etxalar
Etxalar
Arantzaz
Etxalar
Elizondo
Donamaria
Iurrita
Ziga
Arizkun

AKTIBITATEAK-BISITAK

Amaiur arkeologia 641 345 983
zentro-museoa
Amaiurko errota 619 955 709
Amezitia BTT 948 450 028
Baztan Tours 948 452 652
Baztan Trek 696 133 686
BKZ Navarra Aventura 948 592 322
Etxalarko bisitak 637 466 107
Etxalarko usategiak 690 267 756
Irrisarri Land 948 928 922
Katea Bike 948 631 218

Amaiur
Amaiur
Doneztebe
Elizondo
Erratzu
Narbarte-Elizondo
Etxalar
Etxalar
Igantzi
Bera

Kontrabando ibilaldia 690 267 756
Urdazubiko monastegia 948 599 031
Orbela Mendi Gidariak
Espeleologia Lezealde 948 450 014
Ordoki Zalditegia 616 160 115
Taxi Aleman 660 282 665
Trilogia de Baztan 670 336 232
Urdazubiko lezeak 948 599 241
Zugarramurdiko
Sorginen museoa eta lezeak 948 599 223

Etxalar
Urdazubi-Urdax
Beintza-Labaien
Arizkun
Iurrita
Elizondo
Urdazubi-Urdax
Zugarramurdi

GURE PRODUKTUAK

Amaiur taloak 619 955 709
Arkupe gozotegia 948 580 059
Autxitxia gasnategia 657 576 142
Ixiart artisautza-Bertiz 679 609 615

Amaiur
Elizondo-Iurrita
Elizondo
Bertiz


Jauregia gasnategia 675 550 960
Kortariko gasnategia 948 580 427
Malkorra gozotegia 948 580 061


Aniz
Lekaroz
Elizondo

Baztan-Bidasoko oihanak

Historian zehar gizakiak oihana bere beharren arabera ustiatu du. Baztan-Bidasoko oihan eta mendi gehienak komunalak dira, eta haien erabilpena arautua dago. Udalak arduratzen dira oihanaren kontserbazioaz eta ustiapenaz, Nafarroako Gobernuarekin batera. Herrientzako baliabideen iturria da eta horrek azaltzen du gizakiaren eta oihanaren arteko harreman estua. Herri gehienetan herriarrek su egurrerako “lotea” izateko eskubidea dute. Oihanarekin loturiko hiztegia aberatsa da, bertzeak bertze: “oihana” eta “basoa” sinonimoak dira, baina Baztan-Bidasoan “oihana” ezagunagoa da eta “oihangintza” erraten zaio jarduera horri. Alta, “mendia” hitza ere erabilia da eta oihanean aritzen direnei “mendi mutilak” erraten zaie, batez ere XX. mende erdialdean Pirinioetan eta Alpeetan lan gogor horretan aritu zirenei. Zuhaitzaren osagarri nagusiari edo sutarako erregaiari “egurra” erraten zaion bitartean, eraikuntzarako edo altzariak egiteko materialari “zura” erraten zaio, eta profesionalari “zurgina”.

Baztan-Bidasoko oihanen aprobetxamendua ez da bakarrik su egurrerara edo zurgintzara mugatu: fruitua, azala, adarrak, egur ustela... den-dena aprobetxatzen zen, mendeetan zehar komunikabide gutxi eta autarkian (autosufizientzian) oinarritutako gizartean. Horren adierazlea **zuhaitzaren kimaketa** da: adarrak zerraz edo aizkoraz moztzen ziren, zuhaitzaren hazkundera bideratuz. Hala, oihanean altuera gutxiko enbor zabalak aurkituko ditugu, maiz barrutik ustelduak eta hustuak; ehunka urtetako aleak dira, gehienetan gizakiak landatu eta bideratu zuen haien hazkundera. Azken urteetan kimatzeko lanak nabarmen apaldu badira ere, bere onurak direla eta, teknika hauek berreskuratzen ari dira. Gure oihanetan (eta ipuinetan) agertzen diren zuhaitz batzu hauexek dira:





- **GAZTAINONDOA:** Erromatarrek Iberiar Penintsulara ekarri zutela uste bada ere, azkeneko ikerketak glaziazioetan hemen bazegoela frogatzen ari dira. Gaztainondoa garai bateko autarkian oinarritutako herri ekonomia-
ren adierazle nabaria da, ia osorik aprobetxatzen bai-
tzen: fruitua, gaztaina, neguko jaki preziatua; zura,
zurgin lanerako; azala eta adar finak, saskigintza-
rako; eta usteldutako barruko egurra ongarri ona
izaten zen.

- **HARITZA:** Baztan-Bidasoko etxeetako eraikun-
tzen gehien erabiltzen den zura haritza da, bere sen-
dotasun eta iraunkortasunagantatik. Fruitua, ezkurra,
oso estimatua da azienda elikatzeko. Gizakiak bere jar-
dueretarako (nekazaritza, abeltzaintza edo industria-zerbitzu
guneak) hartutako leku argitsu eta zelaietan hedatzen denez,
nabarmen murriztu da bere presentzia eskualdean.

- **PAGOA:** Eskualdeko oihanik handienak osatzen ditu, magal ospe-
letan eta hainbat mendi bizkarretan. Hazkunde azkarrekoa, argi gutxi-
ko oihan freskoak eta garbiak osatzen ditu, bere azpian bertze espezieak
nekez sortzen direna. Hori dela eta, nabarmen hedatzen ari da, gehien-
bat mendi komunaletan. Su egurretarako (egur loteak) eta altzarigintzara-
ko erabiltzen da. Mendian ale kimatuak (“pago zaharrak”) eta berriak maiz
ikusten dira, tartekatua.

- **LIZARRA:** Artzaintzarekin lotutako zuhaitza da, ardiborda inguruan lan-
datu (ez du oihanik osatzen) eta bordaren eremua mugatzen du. Bere adar
txikiak eta kimu freskoak ardien elikagai estimatua dira. Adar zuzenak, aldiz,
kimatu eta baratzetan banabarren (babarrunen) habeak bezala erabiltzen ohi
dira.

- **XARMA, PAGOLIZARRA:** Glaziar Aroan Iberiar Penintsulan oso espe-
zie hedatua bazen ere, egun modu naturalean leku bakarrean aurkitzen
da: San Juan Xar Natur Eremu babestuan, Igan-
tzi eta Arantza artean. Bertan ematen zaion izena
(“pagolizarra”) bertze bi espezieen antzekotasuna-
gatik etorri zaio: hostoak pagoarenaren antza du;
azalak, berriz, lizarrarena.

Baso- bainuak

Baso-bainuen jatorria Japonian dago, laurogeiko hamarkadan. Han, “shinrin-yoku” bezala ezagutzen da, “basorako” eta “bainurako” hitz japoniarrez osatutako hitza.

Gutxi gorabeherako interpretazio libre bat “basoaren atmosferan bainatzea” edo “zentzumenen bidez basoaz gozatzea” litzateke.

Japoniako Nekazaritza, Basogintza eta Arrantza Ministerioak 1982 urtean praktika hori bultzatu zuen, bi helburu nagusirekin:

- Herrialdeko basoei balioa ematea, haien erabilera eta gozamina sustatzea.

- Estresari aurre egitea eta lehia-kortasun eta presio maila izugarri handiak jasaten dituzten biztanleen erlaxazioa erraztea.

Baso-bainua bost zentzumenekin batera baso bat bisitatzea da, pertsonaren ongizatea edo osasunerako onura lortzeko. **Alta, liburuxka hau ez da baso-bainua terapia garatzeko gidaliburu bat, horretarako berezko argitalpenak eta profesionalak badira.** Hemen praktika horretarako irisgarriak eta urte gehienez zehar lasaia diren hainbat lekuren proposamen bat egiten da. Erran gabe doa Baztan-Bidasoan badirela terapia hau garatzeko leku gehiago, eta ego-kiagoak ere seguraski, diziplina honetako profesionalek ezagutzen dituztenak.

Baztan-Bidasoko oihanak energiaz eta naturaz beteak daude eta, zalantzarik gabe, baso-bainua eta ipuin baten irakurketa lasaia bateragarriak, osagarriak eta osasuntsuak dira.



Pertsonaiak eta mitologia

Ipuin eta legenda sorta honetan gai eta pertsonaia ezberdinak agertzen dira. Batzuk herri edo leku horretako gizakiak dira, istorioen protagonistak edo partaideak, aunitzetan anekdotikoak edo “xelebreak”, eta neurri batean garaiko gizarte horren kezakak, beldurak, gogoak, sinesmenak... islatzen dituzte. Bertze batzuk, aldiz, Baztan-Bidasoko nekazal kulturaren erroturik dagoen euskal mitologiako pertsonaiak dira:

- **LAMIA:** Julio Caro Baroja antropologoak dioenez, euskaldunek antzinako Erromako lamietatik izena eta ezaugarriak hartu eta gero ezaugarri horiek gozatuz joan ziren, neska gazte baten eta arrainaren, ahatearen itxura hartuz. Lamia kapritxosoa da, gogokoa egitera ohitua, erreka bazterrean denbora ematen du, bere ile luzea urrezko orrazi eta ispiluarekin moldatzen. Gizaseme asko, haren edertasunak erakarrita, ezinezko amodioan erori eta erotu egiten dira.

- **BASAJAUNA:** Basoko jauna, neurri handiko pertsonaia, egunero bizitzaren hainbat sekretu ezagutzen du (garia, zerra, arotz lana...); gizakiak basajauna trikimailuz engainatu eta sekretu horietaz jabetuz joan zen. Tartalo eta Jentilekin batera, euskal mitologiaren “pertsonaia erraldioen multzoa” osatzen du. Hainbat antropologo eta etnograforen ustez, egungo gizakiak Nardentalekin bizitu izan zen historiaurreko garaian oinarritzen da pertsonaia.

- **SORGINA:** Mitologikoa baino, pertsonaia historikoa da sorgina eta, zoritxarrez, historian zehar ere desitxuratua ere izan dena. Gehienbat emakumezkoa, naturan eta belar sendagarrietan aditua, landa eremuko gizartearen onespina eta nolabaiteko boterea hartu zuen, baina baita ere ohiko botereen mesfidantza, erlijiosoarena batez ere. Hala, gizartean bere pertsekuzioa justifikatzeko, sorgina botere beldurgarri eta kontrolaezinez hornitua agertzen da maiz.

- **TARTALO-JENTILAK:** Basajaunarekin batera “pertsonaia erraldioen multzoa” osatzen dute. Tartalo ezaugarri beldurgarriak eta antropofagoak dituen erraldoia da eta legenda gehienetan errekan itoa hiltzen da, gizaki baten atzetik korrika doala. Jentilak, aldiz, mendian bizi dira, gizakietatik aparte eta kontakturik gabe. Normalean, historiaurreko pertsonaiak dira eta bertako toponimian arrastoa utzi dute: Jentilarria, Jentilbaratza...

Gaua, gaueko- endako

01 DONAMARIA TXARUTAKO ERREKA

Txarutako erreka inguruko mendietako urak biltzen ditu, zoko basak zeharkatuz. Horien artean Oilarbeltzako zubitik gora dauden urjauzi ikusgarriak (erreka hau Trosketa izenarekin ere ezaguna da, kareharriaren higaduraren ondorioz sortzen den “troska” formazioengatik). Goiko magaletan pagadia nagusia den bitartean, erreka bazter honetan hurritzak, lizarrak, gaztainondoak, intxaurreondoak... aurkituko ditugu. Oilarbeltzako zubiak itxura berria badu ere, erreka ez du bere gardentasuna eta freskotasuna galdu eta uraren soinua lagun izanen dugu bere bazterretan.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

2,910 km (1,410 km + 1,500 km)

DESNIBELA: 70 m

Donamaria, herriko frontoia, ostatua eta aparkalekua. Artze auzoko errepidetik, Karmeliten Konbentu ondoan ezkerreko bide zabal eta zementatutik igo, Txarutako erreka zokoan sartuz. Eskuinean, belagian, herriko errotaren aztarnak ikusiko ditugu. Etxe bat pasa eta, bidegurutzean, eskuineko bide zelaia segi, erreka hurbilduz. Oilarbeltzako zubi berritura iritsiko gara: zubia zeharkatu eta, ezkerrean, erreka bazterrean, zelaigune txiki bat aurkituko dugu. **Itzulia:** bidea segitu Artze auzoraino, ibilbide zirkularra eginez eta ikuspegiak gozatuz; Artzetik Donamarira errepidetik jaitsi, Bengoetxea etxe eder ondotik (kontakizunean aipatua) pasatuz.

SEINALAZIOA

Bidean zehar PRko baliza txuri-hori zaharkituak aurkituko ditugu; Artzetik Donamarira errepidez egin behar da.

WIKILOC



Afaria prest zegoen Bengoetxean. Amatzik sukaldeko txorrotan ferrata bete eta denak eseri ziren mahaiaren bueltan. Aitak ogia banatu zuen, amak babarrunak zerbitzatu, baina, goseak egon arren, Mirenek ez zuen mokadurik jan. Beti zen berdin etxe hartan: aita agertu orduko, berea zen hitza, eta bertzeen errantentzat ez zegoen entzulerik.

Eta gau hartan Mirenek inoiz baino behar handiagoa zuen norbaitek entzun zezan. Haserre zegoen, eta kontra egin zion jateko gogoari. Eguna ilunduta itzulia zen etxera, astoarekin, eta seguru zegoen Oilarbeltzeko zubian bidera irten zitzaion gizasemea sorgina zela.

Afaritan zeukan bekozkoaz ohartuta, ohartzera, Izaskun ahizpa galdezka hasi zitzaion. Mirenek aitortu zion hasieran beldurtu egin zela: izaki horrek ezagutzen zuen, lepoa jokatu luke, begiradan sumatu zion. Astoa, berriz, kieto gelditu zen, ez aitzinera, ez gibelera. Zerbait egin behar eta, beldurrari kontra eginez, Miren sorginarengana hurbildu zen. Kasik oihuka erran zion: “*Mundu hontakua bazara, mintza zitte, eta ez bazara mundu hontakua, honda zitte*”. Eta, errana amaitu bezala, desagertu omen zen sorgina. Ahizpa zaharrak, maindire artetik, harriuraz begiratzen zion Mireni, kontatzen segitzeko eskatuz bezala. Sorgina desagertutakoan, arratsa are ilunagoa egin zen. Orduan, nondik ez zekiela, ahots bat sortu omen zen: “*eguna egunekundako, gaba gabekundako, eta egunin isilduarazi dutena hartuko du gabak beretako*”. Sorgin kontuak tarteko, kosta zitzaion gau hartan ahizpei lo hartzea.

Ferrata betez eta ferrata hustuz pasa ziren hurrengo ilunabarrak, eta afari guztietan gertatzen zen berdin. Miren saiatzen zen ikusitakoak kontatzen, baina alferrik, aitak beti zeukan garrantzitsuagoa zirudien kexaren bat: sukaldeko txorrota ez zebilela, oilaskoen-gatik gutxi ordaindu ziotela, errota zaharreko harriaren okerra... Beti bazen zerbait, eta Miren barrua jaten.

Egun batez, amatzik ferrata betetzera bidali zituen ahizpa biak. Mirenek joan nahi izan ez zuenez, Izaskun joan zen, marmarrean.

— Amatxi, baina gaurgero sorginak atera dira... -amatxi erran zion lasai egoteko, bakean utziko zutela, ez giteko kasurik kontu horiei.

Bazihoan Izaskun ferrata hartuta, eta, errota zaharrera hurbiltzean, norbaitek tira egiten ziola sentitu zuen. Ohartu orduko, sorginek lurrera bota zioten ferrata. Izaskun, garrasika, ihesi joan zen, begirada itzuli gabe. Baina, urrundu arren, nondik ez zekiela,

Mirenek entzundako ahots berak jarraitzen zion atzetik: “*Eguna egunekundako, gaua gabekundako, eta zuen Miren ez da gehigo Bengotxerako*”.

Ettxera iritsi zenean, arnasestuen artean galdetu zien etxekoei ea non zegoen ahizpa gaztea. Aitak, alabaren estutasunaz ohartu gabe, lakar erantzun zion:

— Beti bezala, zalapartaka hasi da, eta erran diot, isildu behar ez badu, ohatzera joateko.

Alabak, herioan, aita besotik heldu eta gelara eraman zuen tiraka. Eskaileretan, gertatuak kontatu zizkion tarrapataka. Ordurako, Izaskun seguru zegoen ahizpa faltako zela.

Ireki zuten atea, hurbildu ziren ohatzera, eta, Izaskunen pozerako, bertan zegoen Miren. Alaba gaztearen lo gozoa ikusirik, lasai oheratu ziren Bengoetxeako teilatupean. Oraindik ez zekiten gau hark ebatsia ziola Mireni ahotsa.



Gaztain- ondoaren hostoa

02 BEINTZA-LABAIEN SARASOLAKO GAZTAINONDOAK

Sarasolako gaztainadia Beintza eta Labaien artean dago, mendi magalean, Infernuko errekek zeharkatua. Bertan ehunka urtetako gaztainondoak aurkituko ditugu, herri honek urteetan izan duen autarkia ekonomiaren seinale. Enbor zabalek, gehienak barrutik ustelduak eta hustuak, eta urteetan zehar kimatutako adarrek misterio itxura berezia ematen diote gaztainadiari. Batzuk adar handien pisuak lehertu eta lurrera eroriak, guztiek sekulako bizitza gordetzen dute bere barnean. Horietako aunitzetan aizkorakaden markak aurkituko ditugu, urteetan zehar gizakiaren jardueraren seinale.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

2,970 km (1,450 km + 1,520 km) /

DESNIBELA: 100 m

Beintza-Labaien, San Pedro eliza eta aparkalekua (Udaletxeko karrika). Herria eta errepidea (NA-4040) zeharkatu (300 metrotan zehar, GR baten marka txuri-gorriak) eta azkeneko etxea (Lizarrenea) pasatu ondoren, GRren markak utzi eta eskuin aldera igo, bide zabaletik eta altuera irabaziz. Borda pare baten ondotik pasatu ondoren lehenengo gaztainondo ikusgarriak agertuko dira. Erreka zeharkatu (udan lehorra egoten da) eta sigi-saga egin eta hirugarren bordaren ondotik pasatu ondoren, bide nagusia utzi eta ezkerretara igo: 50 metrotara gaztainondo ederren arteko zelai gune batera. **Itzulia:** bide nagusira itzuli eta zementatutako bidetik Labaienera jaitsi (1 km); handik Beintzara, NA-4040 errepidetik.

SEINALIZAZIOA

Herriko irteera eta Labaien-Beintza errepideko tartea izan ezik (GRko baliza txuri-gorriak), bidean ez dago seinalizatua.

WIKILOC



Istorio hau inguruko herriak baso ziren garaikoa da. Aspaldi hartan, Basajaun maiz ibiltzen zen mendi hauetan barrena, berekin burdina luze bat zeramala. Bertako animaliek asko maite zuten. Tarteka, bordak egiteko eskatzen zioten, eta baita Basajaunek egin ere, txukun eta ederrak, altxortzat zuen tresna hura hartu eta xirriki-xarraka beharrezko oholak moztuz.

Duela 400 bat urte, oroimenak huts egiten ez badit, basoa eraldatzen hasi zen, orduan iritsi baitziren Beintza-Labaiengo lehenengo herritarrak. Aizkorak eskuan, segituan hasi ziren, jo, bota, eman, jo, etxeak egiteko zuhaitzak moztzen.

Hamar, ehun, mila zuhaitzetik gora erabili zituzten etxeak egiteko. Baina a zer komeriak herritar haienak: nekez lortzen zituzten berdintsuak ziren bi ohol. Egurrak okerrak, pa-retak makurrak, laster erori ziren zutik jartzea lortu zuten etxe apurrak.

- Hau da hau miseria —zioen batek—, aizkorarekin gogor nahiz motel jo, berdin ateratzen zaizkit oholak okerrak.
- Basajauni, berriz, zuzen-zuzenak ateratzen zaizkio. Ikusi al dituzue Sarasolan eraiki dituen bordak?

Badakizue nola izaten diren kontu hauek: bat solasean hasi, eta ondokoak ezin isildu. Itzalak galtzen hasi zirenerako, erabakia hartua zeukaten: Basajaun kirikatzea izango zen onena.

Badoaz herriko azkarrenak, salto eta korri, mendian gora, xenda batetik bertzera, Basajaunen sekretua deskubritzera. Baina Basajaun ez zen mozoloa, eta inguruan jendea sumatu orduko, bizarraren giblean gordetzen zuen tresna. Esku hutsik eta etsita itzuli ziren gazteak.

- Saiatu gara, lagunak, baina ezin. Martxa honetan ez dugu herririk eraikiko!

Zenbat kezka, hainbeste atsekabe, gauak pasa zituzten lorik egin gabe. Harik eta, goiz batez, Martinak, herriko neskato batek, mendirako bidea hartu zuen arte. Basajaunen izena ezpainetan zeramala, basoan barneratu zen, eta hara non datorkion zinpi-zanpa bere ondora.

- Basajaun, nirekin ez duzu zure tresna hori gorde beharrik. Akaso aunitzek ez du jakinen, baina nik ongi aski dakit zer forma duen egurra mozteko xirriki-xarraka erabiltzen duzun burni horrek.

Zur eta lur, edo, hobeki erranda, zur eta burni, Basajaun galdezka hasi zitzaion ea sekretua inork ezagutzen ote zuen: hori zen bere kezka.

— Zure sekretua? Dagoeneko gure sekretua da hori, Basajaun!

— Nola? Gaztainondoaren hostoa nire sekretua da!

Hura Martinaren bihotzaren azkarra, ikusiak ditut erbi motelagoak. Laster, burdinari hostoaren forma eman eta xirriki-xarraka zebiltzan herritarrak.

Baina sekretuak sekretu izateari uzten dionean, berri bihurtzen da, eta notizia laster iritsi zen Basajaunen belarrietara. Itzalik gabeko gau batez, haserre bizian jaitsi zen herrira. Egin die atxiki zerra baten hortzei, makurtu ditu bertze batenak, bota du Infernuko erre-kara azkena, eta badoa atzera mendira.

Hurrengo goizean, herritarrak ernatu zirelarik, zerren bila abiatu ziren. Ez zen bat ere falta, baina zerra guztiek makurtuak zituzten hortzak. Hauek konpontzea egunetako lana zen, eta ez zeukaten nahikoa burdinarik berriak egiteko. Azkenean, zeuden moduan utzi eta lanean segitzea erabaki zuten.

Gauzak zer diren, Basajaunen mendekuak erakutsi zien herritarrei zerrak hobeki moztu duela hortzak pixka bat makurtuak baldin baditu. Eta hala, hura konturatzerako, eraikia zuten Beintza-Labaiengo herria.



Urak dakarrena urak darama

03 DONEZTEBE EZKURRA ERREKAREN BIDEA

Ezkurra erreka Basaburuko mendi handietan eta Basakaitzeko iturrietan sortzen da. Erreka “basa”, hainbat zoko eta bazter zeharkatu ondoren, Doneztebera iristen da. Amezitia errekararekin elkartu eta bere urak Bidasoan isuri baino lehen, bertze izen bat hartzen du: Galbaraialde, 650 metrotakoa!! Munduko errekarik laburrena ote? “Izena duena, bada” dio esaera zaharrak, gizakion denari izena emateko dugun ohitura azalduz. Baina, ba al dute izen guztien horien berri Ezkurra errekan bizi diren arrainek? Zer dio gizakiak paratutako presak eta paretak gainditu nahian errekan gora saiatzen den izokinak?



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

3,740 km (1,870 km + 1,870 km)

DESNIBELA: 60 m

Doneztebe, Merkatu Plaza eta aparkalekua. Herriko kanposantuaren gainetik atera lurrezko bide zabaletik. Malda txiki bat egin ondoren, bidea erreka bazterrera jaitsi eta borda baten ondotik pasatzen da. Belagien arteko tarte zelaia egin ondoren, bertze borda bat pasa eta haritz amerikarren artean segitu, Ezkurra errekatik gertu. Aurrerago, bertako haritz eta gaztainondo zaharren artean, egurrezko zubitxo batera iritsiko gara, Doneztebe eta Elgorriagako mugan. Itzal freskoan, jarleku batek atsedean hartzeko konbidatzen du. **Itzulia:** bide beretik; edo 700 metro aurrerago segitu Elgorriagaraino eta bide beretik itzuli.

SEINALIZAZIOA

Bidea osoa “Uraren Bidea” Doneztebetik Zubietarako ibilaldia seinalizatzen duen ur tantta baten irudi urdinarekin eta hainbat poste eta gezirekin balizaturia dago.

WIKILOC



DONEZTEBEKO UDALA / Tresanea Apartamentuak (Ituren)


*Izokina ere Bidasoko memoriaren parte inportantea da.
Eneko Aizpurua – Bidasoan gora*

- Eta orduan, musu eman zenion?
- Bai, eta justu momentu horretan agertu zen ama logelan. A zer lotsa, ez nekien non sartu.
- Eta nire ahizpak zer egin zuen?
- Atea itxi eta alde egin. Ordutik ez dugu ia solastu ere egin. Begira, izeba, gure ama tradizional hutsa da. Berak erranen du ezetz, baina nik badakit nahiago izanen lukeela, Malenekin baino, mutiko batekin banago.
- Ez erran tontakeriarik, Joana! Amak musuarekin hartuko zuen sorpresa. Ahaztua edukiko du bera berdin ibiltzen zela zure adinean.
- Gure ama? Ez dut uste...
- Nola ezetz? Nik ikusi nuen behin. Hemendik gertu dagoen erreka bateko zubian izan zen. Gero hurbilduko gara. Erreka honetan hasi ginen jolasean, baina, lagun bat emariarekin beldurtu, eta errekastora joatea erabaki genuen. Iristear ginela, ama zuen aitari musuka harrapatu nuen. Ni txikia nintzen, eta, afaritarako tenorean, galdetu nion ea zergatik eman zion halako morreo.
- Eta amak zer egin zuen?
- Gurasoen aurrean, lotsatu, jakina. Oihuka hasi zitzaidan, eta segidan gure aita hasi zen oihuka. A zer nolako saltsa sortu nuen nahi gabe.
- Aitona oihuka? Aitona gozo-gozoa da eta...
- Bai, baina bazuen jenioa ere, eta morreoaren kontu hura... Bertze garai batzuk ziren. Hala ere, segituan pasa zitzaion, eta zuen amak are eta gogo handiagoarekin egiten zituen irteerak erreka bazter honetara. Igual zuk ere hona ekarri beharko duzu Malen hori...
- Izeba, mesedez! Hau lotsa... Eta gero etxera eramanen dut afaritan, ezta?

-
- Badakizu zer? Oraintxe oroitu naiz: zuen aita gure etxera etorri zen lehenengo aldian, hemen nonbait harrapatutako izokin batekin agertu zen.
 - Izokinak zeuden hemen, ala?
 - Batzuk bai, garai honetan etortzen dira gelditzen direnak. Akaso ikusiko dugu bat edo bertze.
 - Nik ez dut, bada, batere ikusten.
 - Hara, begira, hor bat! Handi-handia, gainera.

* * *

Arraioa, ikusi egin naute. Etxalartik honaino bake-bakean igo naiz, eta orain bi emakume horiek hor. Baina ez du ematen kanaberarik dutenik. Hara, urruntzen ari dira. Nekatuta nago, Bidasoan gora etortzea gogorra egin zait. Ibaia eraldatua dago: presak, oztopoak, ibaiaren bideak desbideratuak... Badira hamar urte erreka honetan sortu eta Bidasoan behera abiatu nintzela. Garai hartan, ibaia ez zegoen aunitzez hobeki. Baina senak erraten dit, aspaldi, Bidasoan barrena, milaka izokin ibiltzen zela joan-etorrian. Saltoka, gustura, beldurrik gabe. Igoeran, ur azpian, gizakienak bakarrik izan daitezkeen hondakinak topatu ditut, baita Bidasoa inguratzen duten herrien memoriaren arrastoak ere. Leku guztietan ikusten dut gizakiaren presentzia: itsasoan, ibaian, iparraldean, hegoaldean... Baina etxerako buelta ederra iruditu zait, hein batean. Tarte andana garbi mantentzen da, ura jostari jaisten da harrien artean. Agian, hau ez da bideko lekurik basatiena, baina nire etxea da, aditu dezaket. Doneztebeko erreka iskin honetan erranen diot adio bizitzari. Leku hau geroz eta ederragoa zait. Nire ondorengoei hemen jaiotzearen plazera eskainiko diet eta, gero, nire arbasoak bezala, Bidasoan behera joango naiz, ordurako hilotz.



Gaztain- gurutzea

04 ARANTZA

AZKILARREKO GAZTAINONDOAK

Azkilarrea Arantzako auzoetako bat da, mendi magalean sakabanatutako hainbat baserrik osatua. Erreka zokoetan eta lur zailetan aurkituko ditugu ehunka urtetako gaztainondoak, mendeetan zehar Arantzako herriak eta inguruko baserriek izan duten autarkia ekonomiaren seinale, non gaztaina gizakien neguko oinarritzko jakia zen. Enbor zabalek eta urteetan zehar kimatutako adarrek misterio itxura ematen diote gaztainadiari; aunitzetan aizkorakaden markak ere aurkituko ditugu. Historian zehar gaztainondo zahar hauen barnean, gehienak ustelduak eta hustuak, hainbat animalia, landare eta sorpresa gorde izan dira.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

3,670 km (1,835 km + 1,835 km)

DESNIBELA: 125 m

Arantza, herriko sarrera eta aparkalekua. Herria zeharkatu eta ia 400 metro aurrerago, Aterpe Aterpetxean, ezkerreko bidexkatik jo, belagien artean (**ERNE:** irrista-korra izaten ahal da). Mendi magalean barna eta bide estutik erreka zokora jaitsi, zeharkatu eta Azkilarreko gaztainadira iritsiko gara: han hemenka ehunka urtetako gaztainondoak, enbor zabalak eta adar nagusiak kimaturik. Harrizko bidetik segi, etxe baten azpitik pasa eta Gaisenberro etxera ailegatuta, ezkerreko bidexkatik igo, ikuspegi ederreko mendi bizkar eta irazelai batera iritsiz. **Itzulia:** bide beretik itzuli (**OHARRA:** Basoa sentitzeko Azkilarreko gaztainondoak edo Gaisenberro gaineko irazelaia proposatzen dira).

SEINALIZAZIOA

Bidea baliza txuri-berdez ("Azkilarrea" ibilbidea) eta txuri-urdinez ("Putzubeltz" ibilbidea) seinalizatua dago.

WIKILOC



Gogoan dut neguko larunbat arratsaldea zela. Amak eskatu eta Berganeara joan nintzen ardoaren eta gatzaren eske. Sartu bezala, morkotsak botatzeko erabiltzen ziren hagak ikusi nituen lurrean. Atzerago, gizon kuadrilla bat solasean, tartean aita. Ea zer behar nuen galdetu zidan bertako neska gazteak, eta oroitzen naiz, tabernaria ardoaren eske zihoan bitartean, gizonen elkarriketari erreparatu niola bertze behin.

- Zenbatek entzun behar ditek, hik sinesteko? Baietz ba, Jabier, gaztain-gurutzea sorgindua dagoela. Kanpotar gizajoak erori eta hil aitzinetik pasa zituen agoniak eta gero, entzuten dugun arnasa haren arimarena duk, seguru!

Nigmatik balitz, arratsalde osoa pasako nukeen entzuten, baina etxean zaharrena izanda ere, tabernan beti txikiegi. Neskak gauzak ekarri orduko, begirada batez kanporatu ninduen aitak. Afalorduan, etxeokak mahaiaren bueltan geundela, eskean hasi nintzaion aitari, kontatzeko gaztain-gurutzearen inguruko haiek. Erdi haserre mintzatu zitzaigun. Nazkatua omen zegoen, bateko Frai Benito Kanpanero sorgina zela, bertzeko gaztain-gurutzetik erori eta hil zen gizonaren arima inguruan zebilela... Tabernan ez omen zuen tontakeria bertzerik entzuten. Entzundakoekin nahikoa ez, eta herriko zirikek beti izorratzen zuten tabernako lagunena bat edo bertze; kasu hartan, bertze aunitzetan bezala, herriko lan zikin aunitz egiten zituen Gerbasio. Hilaren arnasak entzuten ziren gaztain-gurutzera hurbiltzeko eskatu zioten. Aitari erran nion gustura hurbilduko nintzatekeela neroni ere bertara. Baina, badaezpada ere, halakoetarako ekimena erakusten nuenetan egiten zuen bezala, argi utzi zidan debekatua nuela hara joatea.

Lotarakoan saiatu nintzen ideia burutik kentzen, baina hain zen tentagarria. Banekien, aitak erranda, igande ilunabarrean joatekoa zela Gerbasio gaztainondora. Ongi pentsatuta, asma nezakeen modua joan ahal izateko. Ezkutaketan ez zegoen nire parekorik eskola osoan. Nork ikusiko ninduen? Nola enteratuko zen aita? Gau hartan, erna nengoela hasi eta biharamunean iratzarri arte egin nuen amets.

Igande hartako mezatako sermoia izan zen entzun dudana motzena. Bi banku bertzerik ez zeuden Gerbasio eta bion artean. Beldurrak ote zegoen? Banekien Petrixeneko Gerbasio gizon lasaia zela, maiz entzuna nuen zentzuduna zela ere, baina deus gutxi gehiago. Plana ongi pentsatua nuen. Bazkalorduan ez nuen kasik deus jan. Iluntzen hasi zue nerako, amak, gaixo nengoelakoan, tripan ukendua eman eta ohatzera bidali ninduen.

Oroitzen naiz bezperak amaitu berriak zirela leihotik salto egin nuenean. Lanbroa zen herrian, eta taberna kanpoko izkinan gelditu nintzen esperoan. Laster atera zen Gerba-

sio ostatutik. Distantzia hartu eta gibelatik jarraitu nion. Argirik gabe joanagatik ere, lasai sumatzen nuen gizona; beti bezala, bertzalde. Azkilar basoan barna sartu zen azkenean, bera betiko martxan, ni jarraitu ezinik. Gaztainondo bat eta bertze bat, errekan galdu nuen haren pista. Hurbil behar zuen, baina ez nuen ez entzuten, ezta ikusten ere. Hurrena bistaratu zitzaidanean gaztain-gurutzetik gertu zegoen. Hatsanka arraro bat entzuten zen.

— Bidea galdu duen arima bazara, etor zaitez nigana! —egin zuen oihu Gerbasiok hots arraro hura sortzen zen tokira begira.

Kolpean eseri nintzen. Gerbasio zuhaitzera gerturatzen zihoan neurrian, nik hankak estutzen nituen bularraren kontra. Hatsanka geroz eta ozenago entzuten zen.

— Astoa!

Animalekoa izan zen Gerbasio gizajoak egin zuen saltoa. Irriari eutsi ezinik entzun nituen haren juramentuak. Ez zegoen, bada, Bordaxuriko astoa hantxe, umea egiteko! Gerbasio, oraindik maldizioka, astoa ondotik hartu eta etxerako bideari lotu zitzaion.

Nik, barrenean gordetako irriak atera eta etxerantz segitu aitzinetik, begiak itxi nituen istant batez. Orduan, neure arnasa entzun nuen. Baina ez neurea bakarrik, baita beste batena ere. Behin eta berriz errepikatzen zen. Ziztu bizian urrundu nintzen bertatik. Gau hartan ohatzera sartu nintzen momentutik pentsatu nahi izan dut irudipena izan zela, baina zin egiten dut, Gerbasio eta astoa joan eta gero ere, nik arnasots bat entzun nuela.



Kapeladun gizona eta iturria

05 IGANTZI SAN JUAN XAR ITURRIA

Orain dela milaka urte elurrak eta izotzak gure mendiak estaltzen zituzten eta elurra maiz egiten zuen gure bailaretan. Orduan oihanean bertze zuhaitz batzuk hedatzen ziren. Klima epeldu eta lurraren azala aldatuz joan zen, eguzki aldetik etorritako zuhaitzak eta gizakiak landatutakoak nagusituz. San Juan Xarren izan ezik: herri sinismenak sendatze-ko gaitasuna aitortzen dion iturriaren inguruan eta kareharri latzaren babesean zuhaitz bat, xarma (*carpinus betulus*) gelditu zen. Bertako euskaran izen esanguratsua hartzen du: pago-lizarra, pagoaren hostoaren eta lizarraren azalaren itxura hartzen dituelako. Desagertzeko zorian dagoenez, inguru hau Berezko Natur Gunea izendatua dago.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

4,200 km (2,100 km + 2,100 km)

DESNIBELA: 175 m

Igantzi, herriko plaza eta frontoia. Eskolaren ondotik atera, belagi batzuk zeharkatu eta bide asfaltatu batetik herritik aterako gara. Malda behera piko hasi eta, borda luze baten ondoan, bidegurutzea: bide nagusia utzi eta ezkerreko harrizko galtzadatik (**ERNE**: irristakorra izan daiteke) zuzen jaitsi Igantziko harrobiko sarreraraino, Arantzako errepidean. Harrobiko sarrerako bidea eta errekatxo bat zeharkatu eta igoera labur bat egin ondoren, errepidearen gainetik doan bide estua segitu, gora behera handirik gabe. Hala, San Juan Xarreko goiko aldera iritsiko gara: aurrean, lezeko sarrera (zuloa); ezkerrean, iturrira jaisteko harrizko eskailerak (**ERNE**: tarte irristakorrak; lekua Berezko Erreserba izendatua eta babestua dago). **Itzulia**: bide beretik.

SEINALIZAZIOA

Bide osoa GRT-Bidasoa ibilbidearen baliza txuri-gorriez, poste eta geziez seinalizatua dago.

WIKILOC



Behin batean, zalgurdi bat iritsi zen Igantzira. Kapeladun gizon bat jaitsi zen bertatik, eta begira zituenak txundituta gelditu ziren. Gizon ederra zen, larru fin eta distiratsua zeukan, igantziarrek sekula ikusitako ederrena. Bertan zeudenei azaldu zien urrutitik zetorrela, munduan barna bidaiatzea maite zuela eta arren, lotarako aterpe bat uzteko. Hasiera batean, bertakoak ez ziren fio: lehenago ere herrira hurbilduak ziren jator plantak zituzten lapurrak. Baina gizonak solasari ekin eta kapela kendu orduko, bertan zeudenak konbentzitu zituen. Denak, Idoia izan ezik.

Arrotza etxe batetik bertzera ibiltzen zen apopilo, eta laster herria bitan banatu zen. Harekin inoiz mintzatu gabeek zerbait arroa susmatzen zuten. Etxea zabaldu ziotenak antzaldatuak zeuden. Denak, Idoia izan ezik. Kapeladun gizona ez zen fidatzekoa.

Gizona etxetik ateratzen zen aldi gutxitan, norbaitengana hurbildu, kapela kendu, eta haren etxean lo egiteko gonbidapena jasotzen zuen. Mesfidati zebiltzanak galdezka hasi ziren. Gizonarekin egon zirenak, ordea, ez ziren ongi erantzuteko gai. Arrotzaren larruaren edertasuna, begien indarra eta haren eskuzabaltasuna, ez zuten bertzerik. Baina, egiazki, kapeladunak solasa bertzerik ez zien ematen.

Bertze erremediorik ez eta Idoiarekin solastu zuten azkenean:

- Nik entzundakoa bakarrik kontatzen ahal dizuet. Arrotzarekin egon ginenean gertatutakoa benetan arraroa izan zen. Hasieran luze aritu zen solasean. Bitartean, herritarrek txutxu-mutxuka entzuten nituen: ederra bai, baina harro xamarra, kontatuko erdiak asmatuak izango ditu... Gizona isildu zen noizbait, eta orduan nik soinu txiki bat entzun nuen. Ordutik aitzin, inguruan zituenak, denak hasi ziren hura goraipatzen.

Kapeladun gizonarekin oraindik egon gabeak eta Idoia apenas ateratzen ziren etxetik, eta egitekotan udaletxean biltzeko izaten zen. Etxe bakoitzeko ordezkari bat etortzen zen bileretara, baina gizonarekin elkartzen zirenak ez ziren gehiago agertzen. Bat baino gehiago ohartu zen jendearen larrua zimurtzen eta berdetzen hasia zela. Hori dela eta, erabaki zuten norbaitek solastu behar zuela kapeladunarekin, eta Idoia zen hautagairik onena.

Plazan itxaron zion Idoiak, bai baitzekien lehenago edo geroago agertuko zela. Ibiltzean egiten zuen hots bereziagatik ezagutu zuen.

- Jauna, ezagutu zintudan egunetik jakin nuen prestua zinela. Horrenbeste mundu ezagutu duen pertsonak, derrigor ongi tratatu behar mundutarrak. Horregatik, mesede bat eskatu nahi nizuke. Lagunduko al zenidake San Juan Xarrera? Aspaldi ez naute bertara eraman eta gustura sartuko nituzke hankak hango errekan.

Arrotzak zalantza egin zuen lehenik, baina baietz erran zion. Gau giro ederra zegoen, eta bidean umore onez aritu ziren hitz eta pitz. Iritsi zirenean, Idoiak hala erran zion:

— Jauna, itsua izanik, ezin zaitut ikusi, gutxienez eskuekin aurpegia ukitzen utziko bazenit...

Kokots zorrotza haztatu zuen lehenik, ezpain mamitsuak gero, baina ezin izan zuen begietatik gora luze segitu. Gizonak indarrez heldu zizkion eskuak, eta erran zion hobe zutela etxera joatea.

Hurrengo egunean, Idoiak gertatutakoaren berri eman zien herriko etxekoei:

— Kapelaren azpian zer duen deskubritu behar dugu.

Berriz ere galdezka hasi ziren arrotzarekin liluratuta zeuden herritarrei. Elkarrizketek ez zuten aunitzik irauten; beti zuten matraka bera, eta elkarrizketatzaileen pazientzia geroz eta murriztagoa zen. Baina Idoia ez zen hitzekin aspertzen eta, behin, ohartu zen herritar batek hiru begi deskribatzen zituela.

Gau hartan, plazan, etortzeko seinalea egin zion Idoiak gizonari. Aurrekoan San Juan Xarrera joan bai, baina ez zuela hankarik busti, eta ea berriz eramanen zuen. Idoiarekin solastea beti zenez plazera, gizonak atseginenez lagundu zion.

— Zure larrua sekula ukitu dudan leunena da. Utziko al didazu aurpegia laztantzen?

Oraingoan ere, kokots zorrotza haztatu zuen lehenik, ezpain mamitsuak gero, eta, ziz-tuan, kopetaren erdira hatz lodiak eraman eta indarrez sakatu zion. Gizonak sekulako garrasia egin zuen. Berehala, begiak estutu zizkion Idoiak. Burrumba handi bat entzun, eta gizona bere esku tartetik desagertu zen. Lehen inoiz aditu gabeko ur soinu bat sumatu zuen gibelean. Han bazen zer bait berria.... Badaezpada ere erreka bazterrean gelditzea izanen zen onena.

Goizaldean, herritarrak sumatu zituen San Juan Xarrera hurbiltzen. Gizonarekin egon zirenak amets batetik esnatu berritan bezala zeuden, eta azala beldurgarri zeukaten. Idoiak gertatutakoa kontatu zien, eta, hura solasean ari zen bitartean, denek erreparatu zioten iturri berriari. Ezerezetik sortua zen. Hiru zulo zituen, erdikoa handiena. Ur hartatik edan zutenak handik gutxira azalberritu ziren. Denek ikusi zuten aldaketa. Denek, Idoiak izan ezik.

Harrezkeroztik, iturriaren inguruko istorio aunitz entzun dira, baina zeinek jakin zer den egia eta zer gezurra, inork ez baitzuen bertan gertatua ikusi. Seguru erran daitekeena da, bertan bustitzen denak, larrua leun eta eder izanen duela. Berriz agertu ez zen kapeladun gizonaren parekoa.



Aro berri bat

06 LESAKA ARGIÑENKO ERREKA

Lesaka eta Igantzi artean, Unanua mendi magalean, Argiñeneko erreka dago, Erroizpeko erreka izenarekin ere ezaguna. Inguruko bertze mendietan bezala, hemen ere historiaurretik ustiatutako mehategien aztarnak aurkitzen dira. Hasieran mendi eta larreetan bizi ziren jentilek brontze eta burdin preziatua lortzeko, gero Lesakako burniolak elikatzeke eta azken mendean Bizkaiko eta Asturiaseko labe garaiak asetu nahian agortu arte. Egun, erreka bazterrean eta mendi magaletan oihan gazte bat aurkituko dugu, garai batean ikazkinek kimatzen zuten oihanaren ordezkoa. Lesakako historia burniari eta hori ustiatzeko lanari giltzatuta dago.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

3,700 km (1,850 km + 1,850 km)

DESNIBELA: 65 m

Lesaka, Herriko Plaza. Zabaleta dorretxetik eta Matxinbeltzenea aterpetxetik pasa ondoren, Ote kalean barna Igantziko errepidetik atera (**ERNE:** ia 200 metro bazterbiderik gabe). Zerrategi bat pasa eta Migelenea etxe ondoan, eskuinera jo, Argiñeneko erreka bazterretik doan bide zelai eta zabaletik. Iturri eta ikuzleku txiki baten ondotik pasa eta bideak errekaaren eskuin aldetik segituko du. Akazia eta haritz amerikarren itzal freskoak babesturik, oinezko bi zubitxoetara ailegatuko gara, bi erreka elkartzen diren gunela lasaia. **Itzulia:** bide beretik.

SEINALIZAZIOA

Bidea Igantzira doan Herri Bidearen baliza txuri-berdeekin seinalizatua dago.

WIKILOC



Olentzero izan zen, jentilen artean, argia ikusten lehena. Izar bat zela pentsatu zuen, arreta galdu eta eguzkiaren ondoan lotan gelditu zena. Goizero hurbiltzen zen inguruko kasko altueneko azken harrira. Bertatik ikusten zuen nola jentilak muinoetako zuhaitzen artean agertu eta desagertzen ziren, baina Olentzerori pixka bat haratago begiratzea gustatzen zitzaion. Bailarek erakartzen zuten bera. Han, errekek zabal bezain emankorrak ziren udan zein neguan, eta gizakiak bizi ziren, hurbiletik sekula ikusi ez zituztenak. Jentilek erraten zioten hobe zela horrela. Gizakiak jaio, bizi eta hil egiten ziren.

Izar despistatua handitzen hasi zen eta eguzkiaren pareko bihurtu zenean, jentilek elkar-tzea erabaki zuten. Aro berri bat iristear zen, eta arriskuan zegoen bizidun oro. Neguko solstizioa gainean zela, jentilak buru-belarri hasi ziren lanean. Lur azpian zulo handi bat egitea zuten helburu. Olentzerok, bertze jentilek bezala, gogor ekiten zion lanari, baina begiradak ihes egiten zion bailaratik barna gizakiak sumatzean. Ba ote zuten laster etorriko zenaren berri?

Ez zekien zer egin. Herritarrek beldurra ematen zioten, eta berak hilezkor segitu nahi zuen, beste jentilek bezala. Baina bazekien uste guztiak ez zirela egia. Akaso, herritar haien hilkortasuna ez zen kutsakorra. Lanegun luzearen ondotik, jentilek suaren bueltan bete zituzten sabelak. Lotarako ordua ere iritsi zen, baina Olentzerok beste asmo batzuk zituen.

Abiatu zen ziztu bizian mendian behera, hasieran harrien artetik, zuhaitzak igaro zituen gero eta xendan aitzina joan zen. Neska bat ikusi zuen erreka bazterrean, eta urrutitik mintzatu zitzaion:

— Laguna, arren, entzun eta ez zaitez ikaratu. Minik egin nahi ez dizun jentil bat naiz.

Neskatoa ez zen mugitu, eta Olentzero hurbilduz joan zen, izar handiaz hitz egiten zion bitartean. Konbentzitu zuen herritarra, eta hau lasterka bizian abiatu zen beste gizakien eske. Luze solastu zuten herriko jakintsuek jentil harekin, eta, eguzkia agertu zenean, bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Olentzerok deitu zituen jentilak, eman zien herritarrek zuten plan ezin hobearen berri, baina alferrik. Inork ez zuen ezer jakin nahi, beldur ziren Olentzero bera hilkor bihurtu ez ote zen haiekin egotean. Baina senak herrira jaisteko eskatzen zion Olentzerori, eta senak agindutakoari kasu egin behar.

Izar handiak eguzkia estali zuen egunean, mundua korrika hasi zen. Jentilek zuloan hartu zuten aterpe, eta Olentzerok uretara egin zuen salto herritarrekin batera. Bat-batean, eztanda handi bat entzun zen eta munduak su hartu zuen. Zerua ez zen ikusten eta lurrak ilunabar kolorea zeukan. Arnasari estu eusten zioten urpean zeudenek, aurreko asteetan ikasia zuten eran. Biriketan estutasuna nabaritzen zuten herritarrek. Olentzerok, berriz, korapilo bat zuen zintzurrean: nola ote zeuden bere adiskideak?

Lurrak gauaren kolorea hartu zuelarik, ikusi zuten zerua. Ikatzaren azpitik belarra agertu zen jostari, zuhaitzetako batzuek bizitza berreskuratu zuten, eta harriek harri izaten segitu. Hauen artetik igaroz, Olentzero lagunak bila joan zen. Baina ez zen lan erraza haiek topatzea, muinoak mendi bihurtuak baitziren, eta ezin baitzen zuhaitzen lagun-tzaz orientatu. Inguruko zulo guztiak arakatu zituen, banan-banan; zulo berriak egin, baina jentilak ez ziren inon ageri. Aro berriak kendu egin zion zaharrak emana zion gehiena. Bizitza zuen aldeko, eta horri eutsi behar.

Hurrengo neguko solstizioa iritsi zen arte, inork ez zuen Olentzeroren berririk jaso. Ilunabar hartan, ordea, plazako kantuek bertaraino eramane zuten. Opariak zekartzan bizkarrean, eta gustura hartu zituen lagunak beso artean. Ospakizun ederra izan zen hura, kanta eta dantza entzuten ziren han eta hemen. Erran zioten Olentzerori herrian gelditzeko, baina jentil hark ezin zuen begirada mendietatik aldendu. Agurtzean zimiko txiki bat sentitu zuen bihotzean. Maiteago zuen lagunak ikustea, hauek agurtzea baino.

Ordutik aitzin, Olentzero gauetan joaten da lagunak etxeetara. Urteko gaurik luzeenean, denok lo gaudela, bizitza ospatzen du, maite dituenek bisita eginez. Eta hala egingen du, gutxienez, aro honen amaiera iristen den arte.



Gau- lana

07 BERA

KONDENDIAGAKO BENTA BELTZA

Kondendiagako mendi bizkarra Bera (Nafarroa) eta Sara (Lapurdi) herrien arteko muga naturala da, baita Espainia eta Frantzia estatuen arteko frontera ere. Larhun eta Labeaga mendi handien artean kokaturik, Pirinioak itsasoan “murgildu” baino lehen harrizko azkeneko tontorrek dira. Mugak, frontierak... historian zehar, inguruko haritz ederrek babestua, Kondendiagako lepoa bi estatuen arteko kontrabandoaren (“gaulara”) lekukoa izan da. Hala, XX. mendearen erdialdean egurrezko ostatu edo benta xume bat izan zen hemen, beltzez pintatua: “BENTA BELTZA”. Bertako ostalaria motoz ailegatzen omen zen bertaraino.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

3,250 km (1,700 km + 1,550 km)

DESNIBELA: 150 m

Lizuniagako lepoa (NA-4410, P.K. 4,400 Beratik Sarara). Benta eta aparkalekua. Borda baten ondotik abiatu eta, 350 metro geroago, Larhungo bidea utzi (ehiza postuak) eta, Plazidobaita baserria baino lehen, eskuineko bide zabaletik jaitsi. Ia 250 metro aurrerago, erreka: zuzen igo, errekan gora eta borda baten ondotik pasatuz. Haritz amerikarren itzaletik Kondendiagako lepora iritsiko gara. Zelaigunea eta frontierako 32. mugarria. Egurrezko benta zaharra (“benta beltza”. **ERNE**: honda-mendian dago, ez hurbildu). **Itzulia**: mugarritik erdiko bidetik igo, magaletik; 300 metro aurrerago, ezkerrean “Berako udarea” zuhaitz babestua dago. Bizkarreko bide zabaletik segi eta, ehiza postuetan barna Lizuniagako lepora jaitsi (urrian, usoaren ehiza garaian, ez da komeni tarte honetan ibiltzea; hobe etortzeko bidetik itzultzea).

SEINALIZAZIOA

Hasierako 350 metro izan ezik (PRko baliza txuri-hori zaharkituak), ez dago seinalizatua. Kondendiagatik mendi bizkarreko itzuleran PRko baliza txuri-hori zaharkituak.

WIKILOC



*Mugak zehazturik gelditu ziren, marra egina zegoen baina marra politikoa zen.
Bertakoentzat dirua irabazteko modu bat zen.
Rosa Arburua Goienetxe - Gau lana*

Bentabeltzako salda katilukadarekin barrenak gozatuta, maldan behera zihoazen ama-semeak. Oihuak entzuten ziren, eskopetak kargatzen, eta zakurrek astintzen zuten gaua.

— Errekarantz, seme, hor ez dute gure usainik adituko.

Arnas itoa eskuarekin isilarazten zutela, urruntzen entzun zituzten karabineroen zaldiak. Gaulana beti zen luze. Horregatik, ahal zela, berekin gordetzen zuen Eneak ordu-lapurren bat, bidean semeari kontatzeko ipuin edo pasadizoren bat. Halaxe, gau hartan, Zia errekaen istorioa...

Aspaldi, neguarekin batera, erraldoi bat agertzen hasi zen gure inguruetara. Baratzeak hustu eta abereak irensten zituen. Behin, Saran egin zuen sarraskia; hurrengo batean, berriz, Beran eta Zuraiden. Eta, ikusi zutenen arabera, esaldi berarekin bukatzen zuen beti doilorkeria: itzuliko naiz, itzuliko naiz! Horregatik, inguruetako herritarrek elkar-tzea erabaki zuten.

— Erraldoia akabatu behar dugu! Erraten zuten. Baina ongi aski zekiten hura gelditzen saiatu ziren gerlariek erraldoiaren hankapean bukatu zutela.

Inguruetako adituak deitu eta batzarrak egin zituzten han eta hemen.

— Beti etortzen da neguan erran zuen herritar batek. Beharbada, gure uda probatu-ko balu, ez litzateke bueltatuko.

Udazken hartan gogotik egin zuten lan herritarrek. Etorri zen berriz ere negua, eta harekin batera erraldoia.

— Erraldoi, urtero etortzen zara guregana, dagoeneko etxekotzat zaitugu, eta pentsatu dugu janaria, gordinik baino, kozinatua nahiago izanen duzula.

Adi begiratzen zien erraldoiak, ez baitzuen sekula halako lapikorik ikusi. Salda gorri bat ari zen barnean borborka, abere puskak bertan igeri. Erraldoiak lapikoa hartu, eta, hurrup, osorik irentsi zuen. Haren berotasuna eta ezin egona, korrika abiatu behar izan zuen ur eske.

— Ez zizun ba Ezpeletako piperrak kalterik eginen? —erran zuen batek, irri artean.

Orduak pasa zituen itsasoari zurrupaka. Aunitz edanagatik, baina, ez zion ur gaziak egarririk ase. Eta, hainbeste edan zuenez, ezin izan zion pixagaleari eutsi. Hanka bat Larrunen eta bestea Labiagan jarrita, hustu zuen maskuria. Inguru guztietan entzun zen pixaren soinua: ZI... Eta are urrunago iritsi omen zen erraldoiaren amorruzko garrasia: A...!

Semeak jostari begiratu zion amari.

— Horregatik da Zia erreka, ezta?

Amari ez zion erantzuteko denborarik eman. Gelditzeko agindu zion eskuarekin, iritsiak baitziren 28. mugarrira. Egitera joan ziren tratua itxi bezain fite berriz hasi zen semea galdezka:

— Ama, eta erraldoia ez zen gehiago bueltatu? Eneak ezetz egin zion buruarekin.

— Eta eskerrak, bestela esku hutsik geldituko ginateke eta!

Eguna argitu zuenerako, Bentabeltzan ziren atzera ama-semeak. Gaulanaren ondoren, gustura edan zuten salda.

— Eskerrak ez zuen Bentabeltzako salda goxoa probatu, ezta, seme?

Jostari begiratu zion berriz semeak, ez baitzuen amak arrazoirik falta. Bentabeltzako saldak deusek ez bezala asetzen zuen egarria, epeltzen egunik gogorrenak.



Sua piztua da

08 ZUGARRAMURDI

URAUNDIKO ERREKA

Zugarramurdi mendi magalean hedatzen da. Gaineko mendietatik kostaldea gertu, arront gertu, ikusten da. Itsasorik ez, baina itsasoari so bizi da Zugarramurdi: Kantauriko ekaitzak mendi hauetan lehertu eta, instant batez, errakatxoa ur handiko erreka bihurtzen da, dena gainezka hartuta. Hortik omen datorkio izena Akelarren Lezea zeharkatzen duen Uraundiko Errekari, gero Infernuko Erreka izena hartzen duena. Inkisizioa ere hala ailegatu zen hona, ur handitan, herritar xumeak infernura kondenatuz. Bide bazterreko eta erreka zokoetako ehunka urteetako haritzek eta gaztainondoek, aldiz, historiaren enbatari eutsi diote.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

3,050 km (0,700 km + 2,350 km)

DESNIBELA: 85 m

Zugarramurdi, frontoia, ostatua eta aparkalekua. Herriko plaza zeharkatu eta elizaren ondoko karrikan gora igo. Lehenengo bidegurutzean eskuinera jo, kanposantu ondotik pasatuz; bigarren bidegurutzean erdiko bidexkatik segi, Uraundiko erreka zeharkatu eta, Marixantxeneko bordara ailegatu baino lehen, errekaren putzu baten gainean, haritz eder batzuk daude; bertatik Zugarramurdiko ikuspegi lasai eta ederra. **Itzulia:** bide beretik itzuli herrira. Aukera: azkeneko bidegurutzetik, beheitik bide asfaltatutik segi (zerritegiak), bi etxe artean pasa (Etxartea eta Etxaundiko borda) eta erreka zeharkatu ondoren, bide zabala utzi eta eskuineko bidexkatik Sarako Lezetik Zugarramurdiko Lezera doan bidexkarekin elkartu, Uraundiko erreka (edo Infernuko erreka) zeharkatu eta bertatik herrira itzuli. Guztira: 3,050 km.

SEINALIZAZIOA

Herriko Plazatik kanposanturaino PRko baliza txuri-hori zaharkituak. Lezean barnako luzapena eginez gero, seinalizatu gabeko tarte bat egin behar da, Sarako Lezetik Zugarramurdira doan bidexkarekin bat egin arte, pottoka urdin baten irudiarekin balizatu.

WIKILOC



Arrautza handi bat aurkitu duzu baratzeko lanetan ari zinela. Halakorik sekula ikusi gabea zinen. Esku artean hartu orduko, amak kontatzen zizun istorio hura etorri zaizu gogora.

Amak errana zen, aspaldi, Zugarramurdira dragoi bat etorri zela arrautzak errutera. Egun batzuk pasa omen zituen txoko batetik bertzera hegan, inori minik egin gabe. Baina bisitari berriaren aurrean, herritar batzuk ez zeuden kontent. Horregatik, eta aurrez aurre erasotzera ausartzen ez zirenez, tranpa bat jarri zioten. Dragoia hil eta ondotik, haren haragia jan zuten. Gainera, amak azaldu zizunez, topatutako dragoi-arrautzak kolpeka txikitu zituzten. Hori bai, inork ezin izan omen zuen ziurtatu arrautza guztiak topatu zituzten ala ez.

Akaso, esku artean duzun arrautza dragoiarena da. Gustura galdetuko zenioke ahizpa nagusiari ea amak zer edo zer gehiago kontatu zion berari. Baina badakizu ama hil zutenetik nahiago duela iraganaz ez mintzatu. Ahizpak errana da ama arras jakintsua zelako hil zutela, eta zuk, ordutik, badaezpada ere ez diozu ia ezer kontatzen ahizpari. Ez duzu ahizpaugarren artean erretzerik nahi ama bezala.

Eskuetan duzun arrautzaren barrenean dagoenak ama galdu du, zuk bezala. Erruki handia ematen dizu; zuk ama ezagutu eta berarekin ikasi zenuen, gutxienez. Haurrei jaiotzen laguntzen zien, herrikoak sendatzen zituen, eta zuri eta ahizpari ipuinak kontatzen zizkizuen gauero. Baina herriko medikuak, inbidiagatik seguru, sorgina zela erran zuen. Gau batez, arrastaka atera zuten etxetik. Beste emakume aunitzi ere hala gertatu zitaion. Ez zinen inoiz gehiago amarekin egon. Arrautza barruan dagoenak, berriez, inoiz jaiotzen bada, ez du amarik ikusiko.

Eztabaidan dabiltzan alkatea eta Estebania agurtu eta elizako sakristiara sartu zara. Ez da inor harritu, ahizpak ezin duenetan zuk egiten baitituzu bertako lanak. Haserretu egiten zaitu lan hauengatik sosik ez ikusteak, are gehiago elizako lanak zure amaren erruagatik egiten dituzuela entzuteak. Baina gaur pozik zaude, aitzakiarekin liburuak kirikatu ahalko baitituzu, eta seguru zaude egonen dela dragoieng inguruan mintzatzen den baten bat.

Orriak pasatzen hasi zara ohatzera sartu orduko. Liburuaren aitzinsolasean irakurri duzu bertan ageri dela dragoieng inguruan gizakiak dakien guztia. Ez zara irakurtzen ahizpa bezain abila, baina marrazkiek asko laguntzen dute. Hara! Orri honetan ageri den arrautza eta zuk ohatze azpian gordeta daukazuna antzekoak dira. Beraz, bai, arrautza dragoiarena da. Liburuak dioenez, dragoiek suaren beroa behar dute arrautzatik ateratzeko. Lehenik su handi bat, luze berotuko dituen. Behin sua txingar bihurtu ondotik,

haren berotasunean ordu batzuez mantenduz gero, arrautza kraskatu eta dragoia hegan ateratzen omen da.

Ikasi duzun guztiaren berri eman nahi zenioke ahizpari. Su handi bat egiten laguntzeko eskatuko zenioke, eta seguru zaude lagunduko lizukeela, baina inork ikusiz gero gertatuko litzatekeenaren beldur zara. Horregatik, ez duzu arriskuan jarri nahi. Ahizpa da gelditzen zaizun bakarra. Oraingo, deus ez egitea izanen da onena.

Elizako atean ohar bat ikusi duzu. Aste bete barru, Estebania, amaren gaztetako laguna, erreko dute. Asteak dira suarekin amets egin eta sua desio duzula, baina gaur negarrak irten dizu. Bertze emakume bat hilen dute, eta ahizpa, zu bezala, goibeldu egingen da. Etxerakoan, arrautza besarkatu duzu, amaz oroitzen zinen bitartean.

Erreka bazterrean egurra pilatua dago. Ordu gutxi barru jendez gainezka egonen da ingurua. Beldur zara, norbaitek ikusteak ikaratzen zaitu. Baina, Estebaniak hil behar badu, izan dadila zerbait jaiotzen den bitartean. Arrautzaren bila joan zara korrika, eta hura atorraren azpian sartuta zatoz bueltan erreka bazterrerara. Trebea zara zulo estuetatik pasatzen. Egur eta lasto artean sartu zara. Oraindik jaio gabea den zure lagunak ezkutuan egon behar du.

Zeruan izarrak ikusten dituzu. Etxeko leihotik sumatzen da erreka bazterretik gora doan kea, eta oihuak ere entzuten dira. Ahizpak erran dizu lotara joateko, eta zu, harako keina egin arren, bueltan etorri zara leihora.

Egunak laster argituko du, eta ez da dragoirik inon ageri. Sua itzali den arren, kea irte ten ari da oraindik, eta Estebaniaz oroitu zara. Arrautzaren bila joatea izanen da onena. Korrika abiatu zara kalean beheti. Erreka bazterrean topatu duzu dragoia. Hegan egiteko ahaleginetan ari dela, begiratu egin dizu, eta elkar ezagutu duzuela iruditu zaizu. Orain badoa, lortu du hegaldatzea. Hobe da horrela, baina seguru zaude noizbait itzuliko dela.



Gero

09

URDAZUBI

AXULARREN BIDEA

Urdazubiko herria Ugarana erreka bazterrean hedatzen da, Ameriketako “indianoek” eraikitako etxe galantek osaturik. Haren gainean Azkar mendia dago, Erdi Aroan muga zaintzeko gaztelu bat izan zuena. Muga, beti muga... eta mugarekin batera, kontrabandoa, “gaurlana”; eta kontrabandoarekin batera, paketeak eta pertsonak gordetzeko lekuak, zuloak... Pedro Agerre idazlearen sorlekua izan zen “Axular” etxetik gora doan bidea mugaren gainetik doa, mugari begira. Bertatik gertu Berroberriako eta Alkerdiko lezeak daude, historiaurrean gizakien bizilekua eta historia modernoan muga zeharkatzen zutenen babesgunea. Bidean dauden ehunka urtetako haritzak solastuko balira...



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

4,880 km (1,700 km + 3,180 km)

DESNIBELA: 125 m

Urdazubi, Herriko Plaza. Errotaren ondoko karrikatik atera eta NA-4402 errepide bazterretik 300 metro egin ondoren, ezkerreko bide zabaletik Axular etxeraino igo eta maldan gora segitu bertze 500 metro, haritz ederren artean. Zelaigune batera iritsita, ikuspegi ederra izanen dugu. Bidea gozatzen da mendi magaletik, larre eta oteen artean, eta 500 metro aurrerago haritz zahar eta ikusgarri batera iritsiko gara: ehunka urtetan zehar kimatua, adar handi bat lurrean pausatua du, bertatik hainbat adar ateratzen delarik; bertze adar handia, aldiz, pisuari ezin eutsi eta erori zen. Bere barruan hainbat gorosti hazi da (**ERNE**: haritza itxi gabeko eremu pribatuan dago. Ez da aholkatzen gainera igotzea). **Itzulia**: bide beretik. Aukera: bidea aurrera segitu harrobi abandonatu baten zelaiguneraino; hori zeharkatu eta Urdazubiko Lezera doan bidetik jaitsi (pottoka urdin baten seinaleak) eta bertatik herrira. Guztira: 4,880 km (azkeneko 1,5 km errepidetik).

SEINALIZAZIOA

SL-NA 17 “Axularren Txokoa” ibilbidearekin bat egiten du, marka txuri-berdez balizatua. Harrobiko luzapena ez dago balizatua eta Urdazubiko Lezeraino pottoka baten irudiarekin seinalizatua dago.

WIKILOC



*Eta deabruak orduan Axularren itzala zapaldu zuen eta berekin eraman zuen.
Geroztik, horrexegatik esan ohi da Axular itzalik gabea dela.
Maddi Ariztia*

Kaixo, adiskide, parean ikusten duzun haritza nauzu. Urdazubin jaio eta mundu guzian barna ibilia naiz, baina ordutik denbora aunitz pasa da. Nahi baduzu kon-tatuko dizut nire istorioa, baina bueltan mesede txiki bat egiten badidazu.

Bostehun urtetik gora dauzkat, eta aunitz ikusi eta bizitakoa naiz. Jaio eta urte andana igaro arte, hemen pasatzen nuen eguna, kieto. Hau zen ezagutzen nuen mundua, baka-rra, eta gustatzen zitzaidan. Mota guztietako izakiak etortzen ziren niri bisita egitera, eta istorioak kontatzen zizkidaten, bertakoak eta urrunekoak. Zenbat eta istorio gehiago entzun, orduan eta handiagoa zen hemendik joateko nire desira. Baina zuhaitzik inoiz ikusi ez duenak ere badaki zuhaitzok lurrari lotuta bizi garela.

Behin, ordea, bisita berezi bat jaso nuen. Axular izeneko gizon bat hurbildu zitzaidan, erretore ongi ikasi bat. Lurtarren eskolan ibili zen lehenik, eta deabruenean gero. Gus-tura entzun nizkion kontatutakoak. Orduz geroztik, etxea hurbil zuela eta, maiz etortzen zen bisitan. Behin galdetu nion ea ezagutzen zuen moduren bat ni bertatik mugitu eta munduan barna ibiltzeko. Hark, serio, baietz ihardetsi zidan. Hasieran uste izan nuen bertzeek errandako gauza bera botako zidala: modu bakarra, loreontzi batean sartu eta norbaitek garraiatzea zela. Baina bera ez zen bertzeak bezalakoa, eta hitza eman zidan laster itzuliko zela konponbidearekin.

Egun gutxira, zapata handi batzuekin agertu zen. Hodeien kolorea zeukaten. Haiek jantziz gero, munduan zehar ibili ahalko omen nintzen. Axularrek, sustraia lurpetik kontu han-diz atera, eta zapatetan sartzen lagundu zidan. Bat-batean, arin sentitu nuen enborra, eta plast!, lurrera erori nintzen. Erretorea egunero etortzen zen niri oinez ibiltzen erakustera, eta urte bat igaro zenerako Urdazubiko herria eta inguruko txokoak ezagutzen nituen.

Goiz batez, erran nion urrunago zegoen mundua ezagutu nahi nuela: itsasoa ikusi, basa-mortuan ibili, harrizko mendiak igo... Ulertu ninduen, ni bezala, munduko misterioek txunditzen baitzuten bera. Elkar agurtu genuen, eta bidaia luze bati ekin nion nik.

Mundu osoan zehar ibili nintzen eta behin, etxetik urrun nengoela, sahas eder batekin egin nuen topo. Bere ondoan eseri eta nire sorterriaz hitz egin nion. Berak, berriz, bazter haietako gauzak kontatzen zizkidan. Orduak hegan pasatzen zitzaizkidan haren ondoan. Orduan, erran nion nirea bezalako zapata pare bat ekarriko niola, hara eta hona ibiliko ginela elkarrekin.

Herrira itzuli eta Axularren etxeko atea jo nuen, baina ez zidan inork ireki. Egunak pasa nituen haren bila, baina alferrik. Etsita, sortu nintzen mendi-magalean hartu nuen atsedena, eta, gutxien uste nuenean, Axularren itzala agertu zitzaidan aurrean.

Itzala ez zen Axular bezalakoa, baina Axularrek beste zekien, elkarrekin ibiliak baitziren lurtarren eskolan eta bertze mundukoan.

Hilabeteak pasa nituen hura nire aldeko bihurtu nahian, handia baitzen eskatu nahi nion mesedea. Hark nahi zuen oro egiten nuen nik, eta egun batez ausartu nintzen nire guraria eskatzea:

- Itzal, zuk bakarrik dakizu Axularrek nondik lortu zituen zapata hauek. Hemendik urrun eta lurrera lotua bizi den zuhaitz eder batez maitemindu naiz, eta harentzako bertze zapata pare bat nahi nuke.

Isilik geratu zen itzala. Egun batzuk igaro ondotik etorri zen bueltan:

- Ekarriko dizut zapata pare, baina hori lortzeko, zuk zure pare utzi behar didazu lehenik.

Mundua nire maitearekin batera deskubritzeko desirak itsuturik, zapatak erantzi, eta sustraiak lurpean sartu nituen.

Egunak joan eta egunak etorri, denbora luzez ez nuen itzalaren berririk izan. Ezin nuen deus egin, ezin nion maiteari deus kontatu. Azkenean agertu zen Axularren itzala, eta irrikaz galdetu nion ea lortu al zizkidan zapatak. Berak, baietz. Orduan nik, ea noiz ekarriko zizkidan.

- Gero, lagun, gero.

Susmo txarra harturik, nire zapatak bueltatzeko eskatu nion orduan, baina hark gauza bera ihardetsi zidan:

- Gero, lagun, gero.

Harrezkeroztik, urte aunitz pasa da. Itzalaren erantzuna ez da aldatu, eta nire atsekabea ere ez. Sahats koitadua negar eta negar ariko da seguru. Nik itxaropena daukat oraindik, egunen batez Axularren itzalak zapata pare ekarriko didala.

Eta orain, adiskide, nire istorioa kontatu dizudanez, haxe da eskatu nahi dizudan mesedea:

- Kasualitatez zapata horiek topatzen badituzu, ekarri ieazkidazu, arren. Handiak eta ederrak dira, hodeien kolorekoak.



Eman eta kendu

10 AMAIUR ERROTAKO PRESA

Errotak leku garrantzitsuak izan dira Baztan-Bidasoko gizartean eta historian zehar. Gehienak herriarenak dira eta etxe bakoitzak errotaren zati edo “portzio” bat izaten zuen (hortik erroten jabeek hartzen zuten “portzionista” izenaren jatorria). Herritarrek alea eraman (gehienetan artoa, baina garia ere izaten zen) eta bertan jotzen zuten, irina lortzeko. Amaiurko errotako ubidea (kanala) Aranea errekan eraikitako presan hasten da, Gaztelu mendiko zokoan. Leku ospela da, udan freskoa, bidexka mendi magal kareharritsuan zabaldua, lizarrez eta haritz zaharrez inguratuta.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

1,400 km (0,700 km + 0,70 km)

DESNIBELA: 10 m

Amaiur, herriko sarrera, aparkalekua eta errota. Herriko Karrika Nagusian gora, arkupetik pasa eta Zizkainea etxe jauregiaren ondoan, ezkerrera jo eta behitegi bateraino segitu. Bidexka bat hasiko da (ateka bat pasatu) eta errotako kanalera iritsiko gara. Haren bazterretik segitu, basoko itzal freskoan eta Gaztelu mendiaren magalean. Hala, bidegurutze batera iritsi eta ezkerrera jo, bistan den presako paretaraino (**ERNE**: udako ordu beroetan lekua herriko gazteen bainalekua izaten da). Itzulia: bide berdinetik itzuli.

SEINALIZAZIOA

Bidea Herri Bidexkaren marka txuri-berde zaharkituekin balizatua dago.

WIKILOC



Blai eginda sartu zen Irati etxera. Sua piztu eta etxolaren teilatuak zituen zulo berriak estaltzen saiatu zen. Udak emana zuen berea, eta hurrengo hilabeteak hozak eta umelak izango ziren. Zerbait jan behar eta, afaritarako, zazpigarren aldiz egosi zuen aurreko astean ebatsitako oiloaren hezurra. Leihoa zabaldu zuen gero, eta gazteluko sukaldetik zetorren usaia adituz, platereko ur zikina irentsi zuen. Krudela zen bizitza: nola zitekeen paradisua horren gertu eduki eta infernuan bizitzea? Ezkilak hargarren aldiz jotzerako, Irati lo zegoen.

Etxe ondoko errekan arrantzan ari zela argitu zuen egunak Amaiurren. Behi bat erostea- rekin egiten zuen amets, baina, amuarrainekin ateratzen zuen diruarekin, esnea ere doi- doi erosi zezakeen. Erraten zioten, aziendak edukitzeko, ezkontzea zuela onena. Baina berak libre izan nahi zuen, gizonak bezain libre gutxienez.

Etxeko atera deitu zuten aldi batean, ezkilak bederatzi kolpe eman berriak zituen. Iratik atea zabaldu zuen.

— Irati, utzidazu etxera sartzen. Euria ler hasi du, eta gaua pasatzeko aterpe bat nahi nuke.

Nor ote zen laguntza eske zetorren hura? Izenez deitu zion, gainera. Ez zitzaion galde- tzea beste erremediorik gelditu.

— Mundu honen sortzailea naiz, ikusten duzun oro nik egina da.

Iratik hitzik ez, eta Jainkoak segitu zuen solasean. Baina Iratik ez zion sartzen utzi.

Sortzailearen bisita ahaztu xamar zeukan atea bigarren aldiz jo zutenean. Negu giroa zen kanpoan. Aitzinetik sekula ikusi ez izanagatik ere, segituan ezagutu zuen ataurrean zuena. Pare pare zeuden Irati eta Herio.

— Irati, hotzak nago. Gaua pasatzeko aterpe bat behar dut. Baina, lasai, bihar goizean zu gabe joanen naiz hemendik.

Arraroa baldin bazen ere, Iratik ez zuen beldurrik sumatzen. Sartu ziren biak etxean eta, kanpaiek zortzi kolpe eman orduko, suaren bueltan eseri ziren. Iratik udazkenean gertatutakoa kontatu zion.

— Jainkoa hurbildu zitzaidan aterpe eske. Luze aritu zen bere obraz solasean, eta nik ez nuen haserrea bertzerik sentitzen. Ezin nuen ulertu nola egon zitekeen horren harro, gizakia sortu bai, baina gero haietako gehienak miseriara kondenatuta. Eta ez nion etxean sartzen utzi. Baina zu zuzena zara, denentzat zara berdina.

Solas eta solas aritu ziren, eta, lotaratu aurretik, hala erran zion Heriok:

- Bihar goizean goiz joanen naiz, baina zure eskuzabaltasuna eskertu beharrean nago. Horregatik, botere bat emanen dizut. Hemendik aurrera, gaixo dagoenaren ohatzera hurbiltzen bazara, ikusi egingen nauzu. Haren buruaren ondoan eserita banago, biziren da. Aldiz, oinetatik gertu ikusten banauzu, laster eramanen dut nirekin.

Solasa agortu ahala, loak hartu zituen biak, eta aurrera jarraitu zuen bizitzak.

Hurrengo udaberrian, gaitz ezezagun batek jo zuen erregina. Munduko zazpi muturretatik etorritako medikuek ilara luzeak egiten zituzten Amaiurko gazteluaren inguruan. Baina ez zuen inork asmatzen zerk zeukan erregina eritua. Eta ez zekien inork biziko zen ala ez. Berria jakin zuelarik, Irati gazteluko atean plantatu zen.

- Errege, entzun! Erregina ikusten uzten badit, jakinen dut biziko den ala ez.

Hamaika egunen ondoren ireki zioten atea. Irati, erreginaren ondora gerturatu, eta Herio ikusi zuen. Aztoratuta, korrika irten, eta lorategitik sorta bat hartuta itzuli zen.

- Berri onekin natorkio, maiestate. Erreginari orain prestatuko dudana ukendua igurzten badio, salbatu egingen da.

Behar zituen guztiak eskaini zizkion erregeak, eta neskatoak lanari ekin zion. Erregina ohatzetik altxatu zen egunean, ezkilak entzun ziren erresuma osoan. Amaiurko sendagileari buruzko solasak ere lau haizetara zabaltzen ziren. Etxe handi bat eraiki zioten gazteluko lorategian, urrez betetako poltsak ematen zizkieten eritutako aberatsak ikustera joatearen truk, eta Iratiri arraroa bezain ederra iruditzen zitzaion mundua.

Handik urte gutxira, udaberriko arratsalde epel batean, Herio agertu zitzaion Iratiri lorategian. Begiradan sumatu zion ez zetorrela bisitan, eta haserre eta beldurtuta eta erruki eske, ez eramateko eskatu zion.

- Ulertzen dut zure mina -erran zion heriok-: dena eman nizun, eta dena kentzerara nator orain. Gaur urte zenbait, ene lagun, oraindik pobrea zinenean, aitortu zenidan justua naizela, ordua iritsitakoan berdin eramaten baitituz aberatsak eta behartsuak, bizitzan izan dutenari begiratu gabe. Bada, iritsia da zure ordua.

Ezkilek zazpi kolpe eman zituzten. Iratik, ordea, ez zituen entzun, eta Amaiurko medikua ez zuen inork berriz ikusi.



Zapatak eta ogia

11 ARIZKUN

LAMIARRIETAKO ZUBIA

Arizkun eta Bozate artean Lamiarrietako harrizko zubia dago, Baztan errekek hareharrian moldatu eta urjauzika zeharkatzen dituen putzuen gainean eraikia. Bertan herriko errota eroriaren aztarnak daude. Lekuaren izena “lamia” eta “harrria” hitzetatik dator, hau da, lamiak egoten diren harriak. Historian zehar pasabide garrantzitsua izan da: Baionatik Santiagorako erromesak, Erdi Aroaz geroztik Nafarroatik kostalderako merkantzien garraiolariak, Urtsua eta Lamiarrieta jauregi-tako nagusiak eta morroiak, eta, nola ez, bertako errotan alea jotzera eta ondoko laxoako frontoian (eskualdeko pilota joku tradizionala) jostatzera joaten ziren herritarrak. Aunitz dira, udako beroan, bertako putzuan freskatzeko tentazioari ezin eutsi eta, nork daki, une gozo horretan erreka bazterrean lamia baten irudi gozoa irudikatu dutenak.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

1,950 km (0,975 km + 0,975 km)

DESNIBELA: 35 m

Arizkun, Herriko Plaza. Karrika Nagusian gora 300 metro egin eta azkeneko etxee-tan ezkerretik segi, artisau aroztegi baten ondotik. Belagien arteko bide zabaletik bertze 300 metro eta bidegurutzean, etxe baten ondoan, ezkerreko bidetik jaitsi eta NA-2601 errepidera eta Lamiarrietako zubira iritsiko gara. Ezkerrean, herriko erro-ta zahar eroria. Zubiaren bertze aldean laxoako frontoia (eskualdeko pilota joku tradizionala) gelditzen da. Zubia zeharkatu gabe, eskuinera jo eta erreka jeitsi, lamien putzuetara (**ERNE:** 50 metro errepidetik; lekua ez dago bainurako presta-tua). **Itzulia:** bide beretik itzuli.

SEINALIZAZIOA

Bidea “Baztangoiza” ibilbidearen baliza txuri-hori zahar-kituekin seinalizatua dago, hala nola Santiagoko Bideko gezi horiekin, baina kontrako zentzuan.

WIKILOC



BAZTANGO UDALA / Gontxea (Arizkun) eta Urruska (Beartzun-Elizondo) Landa Etxeak

Ezagutzen al duzue Arizkungo Bozate auzoa? Bertakoa da Mikel zapataria. Garai batean, sos batzuk ateratzeko asmoz, goizero hartzen zuen herrirako bidea. Sartzen zen auzokoen etxeetan, begiak erne, hortzak zorrotz, eta mailua eskuan sendo zeramala. Kixki eta kaxka, ederki konpontzen zituen larru eta zolak, eta, amaitutakoan, beti aurkitzen zuen modua egindako lanagatik zerbait gehiago kobratzeko.

— Laguna, koipe pixka batekin espezial geldituko zaizkizu zapata hauek!

Badoa jabea koipearen eske, eta, zirrist, Mikelek magra tresnen kutxara.

Zenbatetan ez ote nuen entzun irriz maldan behera zetorrela.

— Tuntun eta inozoz inguratua nago! Pena bakarra, zerbait ebatsi ahal izateko lehenago zapatak konpondu beharra.

Beretako deus ez zen berezi, ez zitzaion inor bereziki inporta. Arratsalde batez, Lamiarrietako zubian eseri zen. Gazta zati bat hartua zuen Ttipittoneatik, eta bere buruari galdetzen zion aitzineko astean Dolaetxean ebatsi zuena bezain ona egonen ote zen. Probatzera doala... danba!

Soinua entzun bezala, jiratu, eta zubi azpian ikusi du: aurpegia eta ilea jostariak zituen, dantza bat zirudien haren gorputzak. Mikelenak, berriz, ikusten duena sinetsi ezinik, ez du zirkinik egiten. Neska eder hark ahatearen oinak zeuzkan!

Lamiak keinu egin dio Mikeli, eta honek, bitan pentsatu gabe, zubitik salto egin du. Lamiak, gizonari harri batera igotzen lagundu, eta kantu-solasean hasi da:

— Errekak egin du bere bidea, lamiena dago uretan gordea, gizon hau bada ausart eta trebea, ireki dadila beretzat atea.

Lamiarrieta putzuko ura bi aldeetara zabalduz zihoan Mikelen begi harrituen aitzinean. Laster, lamiak, bidearen bukaerako atea irekiz, erran dio:

— Nahi baduzu, gure etxeko atea zabalik daukazu.

Atea gurutzatutakoan, liluratuta gelditu da. Jolas bat zen hura begientzat, gozamina bellarrientzat, baina usaimenak erakutsi dio oparirik ederrena: ogi egin berria zekarren lamiak esku artean, zuria eta xamurra. Mikelek ez zuen sekula halakorik probatu. Hura zen gutizia, hura! Arnasa hartzeko astirik gabe jan du mami zuritik.

Elkar agurtzeko ordua ere iristerakoan, lamiak erran dio gonbidatuko duela berriz ere.

— Errekak egin du bere bidea, lamiena dago uretan gordea, gizon hau ongi portatu bada, ireki dadila beretzat atea.

Birritan errepikatu du lamiak araoa, hasieran gozo, ozen gero, baina biderik zabaltzen ez. Haserre begiratu dio orduan Mikeli. Mikel, ogia sakelatik atera, eta lotsa ezkututzen saiatu da. Lamiak ogia eskuetan hartu bezain fite, atzera bidea egin ahal izan zuen zapatariak. Itzuli da lamiari adio errateko, baina ordurako putzua beti bezala zegoen.

Harrezkeroztik, egunero gelditzen da Mikel Lamiarrietako zubian, herrira doala, eta baita herritik bueltan ere, baina ez du inoiz gehiago lamiarik ikusi.



Urrezko estatua (distopia bat)

12 LEKAROZ BELTZURIKO ERREKA

Lekarozko herria mendi bizkar batean zabaltzen da, hegoaldera orientatua eta Baztango bailarari begira. Udako egun beroetan eskualdeko tenperaturarik altuenak bertan izaten dira maiz. Egun horietan bereziki, sargoritik ihesi, herritik gertu dagoen Beltzuriko erreka freskotasuna eskertzen dute lekaroztarrek: ehunka urte-tako haritzen itzal goxoa... txorien kantua, erreka soinua, natura, lasaitasuna... hain gauza sinpleak eta egunerokoak izaki, aunitzetan ez dira behar bezala baloratuak izaten. Baina galzorian daudenean, urrezko altxorra direla ohartu eta sutsuki defendatu behar dira!



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

2,110 km (1,100 km + 1,110 km)

DESNIBELA: 35 m

Lekaroz, herriko plaza. Elizaren azpiko bide zabaletik herritik atera eta, 200 metro-tara, bidegurutzea: erdiko bide zabal eta zelaitik segitu (eskuinekoa 'Larralde Sagarrotegia' > markatzen du), behitegi handi baten ondotik pasatuz. Belagien artean, eta ia kilometro bat egin ondoren, Indakoborda etxera iritsiko gara. Bide nagusia mantenduz, ezkerretik Beltzuri erreka jaitsi, haritz ederren artean; erreka bazter freskoa eta atsedeen gunea dago. Itzulia: atsedeen gunetik, erreka bazterreko bidexkatik haritz artean jaitsi eta, 250 metro aurrerago, Legate mendiko bide zabalarekin elkartu eta bertatik herrira itzuli.

SEINALIZAZIOA

Bidea ez dago seinalizatua, baina segitzeko erraza da.

WIKILOC




Egun on, Javier! Dotore ikusten zaitut. Gaur 89 urte betetzen ditut, adiskide. Hamasei eta erdi zu bertze mundura joan zinenetik. Eta pentsatu dut: aspaldi ez diot Javierri bisitarik egin, joan beharko dut ea zer dioen... Barkatuko didazu txantxa. Zure gustuko bonboiak ekarri ditut: likoredunak. Medikua maiz erraten dit halakorik ez jateko, baina gaur ez diot kasurik egingen. Nire partea eta zurea janen ditut. Gogoratzten al duzu bonboiak probatu genituen lehenengo aldia? Ameriketako izebak ekarri zizkigun. Aberatsen kontua zen hori, eta guk horixe nahi! Eta ikusi orain, zortzi metroko urrezko estatua bat zara. Gustura egoten da bat zuri begira. Herri txiki hau handi bihurtu genuen, Javier. Argiak izan ginen, azkarrek. Ingurura begiratu eta pentsatzen dut ba ote dagoen horrelako errepide dotorerik Europa guztian. Bideak zabaldu genituen, kale-argi ederrak jarri, prestigio handiko golf zelaia eraiki... Baina zer den herriko jendea, ez zuten ikusten aurrerabidea genekarrela, eta aunitz kontra jarri zitzaizkigun. Oroitzen zer nolako manifestazioak antolatu zituzten? Behin erran zenidan herritar batzuk entzun zenituela bertako haritzen izenean solasean, basoa gora eta basoa behera. Baina guk pertsonen ongizatea jartzen genuen naturaren aitzinetik. Zuk bazenekien zertaz ari nintzen. Haiek ez. Zer den ezjakintasuna... Etxe zuriak ere dotore gelditu zitzaizkigun. Gogoratzten ditut hauen inguruan aparkatuak egoten ziren kotxeak: Ferrariak, Jaguarrak, Bugattiak... Lekaroz fashion week zirudien horrek! Pentsa zenbat ingeles eta amerikar etorri ziren. Horiek bai eman ziotela bailarari cachea. Haiei berdin zitzaien kafearen prezioa, bazkariarena. Edozer gauza ordaintzeko prest zeuden, eta hori ederra zen. Tabernak, dendak, denetarik zabaldu genuen. Baina orduan ere batzuk kexu, aspaldian ez omen zela eta txorien kanturik entzuten ahal. Ezjakina behar du, diruaren hotsa baino, txorien soinua nahiago izateko. Baina, zer errango dizut, gu enpresarioak ginen, Javier, eta haiek, arloteak. Apustu egin genuen, eta irabazi. Eta galdu genuela dioenari, kasurik ez! Zelaiak horitu ziren eta errekek lehortu. Baina nik zahartze aldera eskertu egin dut. Erreuma askoz hobeki daukat. Lehortek hasi zirenean, herriko iturritik beheiti, urik ez eta ardoa jarri nuen. Ez nuke erranen aldaketa txarra denik. Eskerrak ez duten berrikuntza hau ikusi, bertzenaz izanen lukete, bai, zer errana. Horiek ziren erromantikoak, horiek, dena nahi zuten berdin mantendu. Orain kaleek erreken izenak dauzkate, eta gure zonaldean bizi ziren animalia guztiak topatu daitezke museoa. Nik uste denok atera ginela irabazle. Egia da proiektuak ez zuela aunitz iraun, hamar urte on, baina jendearen errua izan zen: haiek eman ziguten bizkarra, eta haiek izan ziren, herrian bizi ezin zela eta, alde egin zutenak. Bertzalde, normala ere bada, gutxi izan baitziren gu bezain argiak. Halako proiektuek gora egiten dute lehenik, gero behera, eta berriz gora; baina itxaron egin behar. Gu bezain argia denak, itxaroteko arazorik ez. Baina, badakizu zer? Mesede ederra egin ziguten herria utzita. Orain herria oso-osorik da nirea! Lasai ateratzen naiz ka-

lera paseatzera, zahartzen ari naizelako inork zerbait errango duen kezkarik gabe. Gainera, Angelikak, bazkaria prestatu, etxeak garbitu, dena egiten dit. Robot hauekin, nork behar ditu pertsonak? Pena bakarra, ez nuela helikoptero automatikoa erosi. Ikaragarri gustatzen zitzaidan zerutik gure obra ikustea: argiak, etxeak, urrezko estatuak... Baina, behin, ez zidan ba txoferrak erran ongi etorriko litzaidakeela hurbilean lagunena bat egitea, beti Mihami edo Marbellaraino joaten ibili gabe! Ez zitzaidan hura kaleratzea beste erremediorik gelditu. Gainera, egun ez badira ingurukoak herrira etortzen, gure ondoan txiki sentitzen direlako da. Errespetua sorrarazten dugulako. Baina, hiltzen naizenean, orduan ikusiko duzu, Javier... Dena prest uzten ari naiz. Gu gabe baina gugatik izango da Lekaroz berriz ere handi. Autobusak etorriko dira Lekaroz berria ikustera, Mihamitik, Marbellatik, eta baita urrunagotik ere! Luxua topatuko dute hemen, eta, gu begiratzean, Javier, estatua distiratsu bihurturik, ohartuko dira Lekaroz handiagoa dela guri esker.

* * *

Oharra: Handik zortzi bat hilabetera, bi turista ingeles pasa ziren Lekaroztik. Gutxi bartzuen diru-goseak agortutako herri bat aurkitu zuten. Eta, plazan, urrezko estatua distiratsu baten ondoan, hilotz bat, usteldua.



Haurraren pregoia

13 BERROETA MITXAURTEKO ERREKA

Baionatik Iruñerako Santiagoko Bidea Baztanen barna doa, Otsondo eta Belateko gainak zeharkatuz. Berroetatik pasatzen da eta herrian erromesek bertako aterpean atsedena hartzen dute. Hurrengo egunean, gehienek Almandozko bide “seguruan” barna igotzen dute Belateko malda. Baina badira, agian malda gutxiago edo barkadadea nahiago dutelako, Berroetatik Sastra errekan gora igo nahiago dutenak. Inguru basa da, zokoetan barna eta, garai bateko legendek ziotenez, bidelapurrez beteta. Bide hasieran herri nekazari honen behitegi berriak pasa ondoren, ehunka urtetako gaztainondo ikusgarriak aurkituko ditugu.



NOLA IRITSI / DISTANTZIA

4,040 km (1,400 km + 2,640 km)

DESNIBELA: 100 m

Berroeta, herriko plaza eta frontoia, aparkalekua. Karrika Nagusian gora herritik bide zabaletik atera, belagien artean; 350 metrotara, bidegurutzean, bide zabala utzi eta ezkerretik igo, eskuinean behitegi batzuk utziz. Berriz bide nagusian bertze bidegurutze batera iritsiko gara eta behitegi baten azpian eskuineko bide zelai eta zabaletik segituko dugu, ardi borda eta belagietan barna, haritz eta lizarren itzalpean. Hala, Mitxaurteko erreka iritsi, zeharkatu eta 300 metro aurrerago eskuineko bide zelaitik segituko dugu (ezkerrekoa itzultzeko bidea da). Arotxenea eta Uzketakoborda bordetatik pasa eta, azken honetan, ezkerreko bidetik igo mendi bizkar batera (ikuspegi zabala) eta bertatik jaitsi aurreko bidegurutzera. Berriz Mitxaurteko erreka zeharkatu eta Berroetara bide beretik itzuli.

SEINALIZAZIOA

Bidea “Basaburua” ibilbidearen baliza txuri-hori zaharkituekin seinalizatua azkeneko behitegiraino. Handik baliza hori gutxi batzu Uzketakobordariano (**OHARRA:** bide hau Almandozko Santiago Bidearen ordezkua bezala prestatu zen, baina ez du bide honen seinalizazioa).


WIKILOC



**BAZTANGO UDALA / Etkezuria (Ziga), Jauregia (Aniz)
eta Matxingonea (Zoziaia-Oronoz) Landa Etxeak****Haurraren pregoia: izango ahal dira hamahiru!**

Kaixo, Luka naiz eta ditut zazpi urte
Berroetan herenegun nituenak bete,
gustatzen zait errekan bainua hartzea
eta hatza belarri zuloan sartzea,
aunitz dibertitzen naiz autoan kexatzen
noiz iritsiko garen handiei galdetzen.
Orain badakizuenetz nitaz gehiena
erran beharra daukat garrantzitsuena:
gurasoekin nago erabat haserre,
opor hauetan naute azkenean erre,
beti dabiltza gauzak eskatu eta eskatu
eta orain nahi nuke egia kontatu.
Behingoz helduok haurrak uler gaitzazuen
hamahiru arrazoiak uzten ditut hemen.
Baztanen sartu eta lehenbiziko gauza:
gaur igoko ditugu Erdiz eta Auza,
Berroetan gaude eta, euskaraz solastu,
ez gaitzazu mesedez herrian lotsatu.
Jatetxera joan gara gero bazkaltzera
isilik egon behar genuen batera.
Postrerako handiek tarta eta flana,
anaiak eta biok mandarina bana.
Berriz haserretu naiz eta hasi naiz negarrez,
gurasoek, albotik: Mesedez, hemen ez!
Baina gero bertatik irteterakoan
zaina loditu zaioa amari lepoan.

Haserre mintzatu zait, erdaraz, oihuka,
nire jarrerarekin arras nekatuta.
Nik erantzun orduko, albotik bestea:
ez izorratu, arren, oporren astea.
Nik hipokrita hutsak direla uste dut
eta elkarbanatu ditut pentsamendu batzuk.
Azkar erantzun dute ez dela horrela,
ia beti euskaraz mintzatzen direla.
Ez diet erran, baina dakit ongi aski
ez dutela euskaraz hitz egiten beti,
ez bagaude ondoan, beraiei begira
lagunekin erdaraz mintzatzen baitira.
Telebista aurrean antzeko gabiltza:
haiek dute mandoa, haiena da hitza.
Beti edozein kate ikusten ahal dute
eta gu irakurtzera bidaltzen gaituzte.
Horrenbeste arrazoi buruan barrena,
ahaztu zait azkenik hamahirugarrena.
Honekin nahikoa da, badakit horrela
Euskal Herriko haurrek ulertzen nautela.
Adituko duzue handiek sekula
haurrok ikusi ahala ikasten dugula?
Zigortu beharrean eta ibili deman
ez ahal duzue hobe, eredua eman?
Ze ederra izanen zen hurrengoan kantuz
testu bat osatzea helduak eskertuz,
ea lor ditzakegun hamahiru arrazoi
zuek goraipatzeko! Hitzok haurron pregoi!



Bitacora cahiera

Bidaia kuadernoa

Lan taldea

AMAIA ELIZAGOIEN VARELA (Oronoz, 1994): Ipuinak entzutea bezainbeste gustatzen zaio ipuinak kontatzea, eta horretan dabil 2015etik. Irati Celestino musikariarekin batera, Euskal Herrian barrena ibiltzen da, entzun nahi dituenari ipuinak eta istorioak kontatuz. Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa eta gradua eginak ditu, eta txikitatik maite du ipuinak idatzi eta irakurtzea. Proiektu honetan, istorioak jaso, moldatu, sortu eta itzuli egin ditu, eta lan taldearen koordinatzailea izan da.

Kontaktua: ipuinkontalaria.eus eta ameli@ipuinkontalaria.eus

JUAN ANGEL PEROTXENA URANGA (Elizondo, 1980): MALMÖ ilustrazioa&diseinua 2011n sortu zuen Maria Gazteluperekin batera. Elizondon (Nafarroa) kokatuta dagoen estudio txiki bat da. Bi lagunengoa, adiskide mordoa dituen eta diseinuan eta ilustrazioan espezializatuta dagoena. Hasieratik aldatu ez den gauza bakar bat baino ez dago: arkatzez zirriborroa eginez lan egiten haseta proiektu guztietan.

Kontaktua: kaixo@malmohouse.com

BARBARA GRAGIRENA (Iruñea / Doneztebe, 1992): Arte zuzendaria animazio proiektuetan, parte hartu duen azken film luzea "Dártacan y los tres mosqueperros" da. Bere ibilbide profesionala istorioak eta emozioak kolorearen eta argiaren bidez kontatzean datza. Ilustratzaile gisa, proiektu didaktikoak eta ingurumenekoak ditu. "The Magpie 's nest" telesailetarako garapen-enpresa sortu zuen, "Iniciate" sariari esker, non nazioko eta nazioarteko jaialdietan saritutako proiektuak garatzen dituen.

Kontaktua: [@b.gragirena](https://www.instagram.com/b.gragirena)

MIKEL CALVO GALARZA (Iruñea 1995): Txikitatik marrazten aritu ondoren diseinu grafikoa eta marrazkigintza ogibidez hartu du. Diseinuan lizenziatzeko ikasketak burutu bitartean muralak, Iruñeko hainbat musika taldeendako diseinuak eta irudiarekin zerikusia zuten proiektu ugari esker lanbide honetan murgiltzen hasteko aukera izan du. Gaur egun hainbat entitate eta bestelako kolektiboendako lanean ari da.

Kontaktua: [@mikel_calvo](https://www.instagram.com/mikel_calvo)

MIKEL ALBISU GOMEZ (Beintza-Labaien / Donostia, 1963): Mendi gidari profesionala eta geografian lizentziatua, 1990tik Beintzako Aterpetxea-ORBELA kudeatzen du, natur jarduerak antolatuz eta koordinatuz. Eskualdeko hainbat mendi ibilbideren diseinua eta seinalizazioa egin du. Proiektu honetan, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkartearen ordezkaria, ibilbideen diseinua eta hainbat testuren egilea da.

Kontaktua: info@orbela-beintza.com (www.orbela-beintza.com)

ALEX GURRUTXAGA MUXIKA Testu originalen zuzentzailea (euskaraz).

OLAIA ANDUEZA RUIZ Euskara > Gaztelania itzulpenen zuzentzailea (oandueza@outlook.com)

Proiektu hau babestu eta parte hartu dute...

- Utxunea Landa Etxea (Donamaria)
 - Martiornea Landa Etxea (Oitz)
 - Beintzako Aterpetxea-ORBELA
 - Tresanea Apartamentuak (Ituren)
- Arantzako ATERPE Aterpetxea-Jatetxea
 - Angiz Landa Apartamentua (Sunbilla)
- Gainkoborda Landa Apartamentua (Etxalar)
 - Iratxeko Bera Landa Etxea (Bera)
- Zugarramurdiko Lezeak eta Sorginen Museoa
- Urdazubi-Urdaxko Turismo Alojamenduak eta Zerbitzuak
 - Amaiurko Arkeologia Zentroa
- Mendialdea Apartamentuak (Amaiur)
 - Gontxea Landa Etxea (Arizkun)
- Urruska Landa Etxea (Beartzun-Elizondo)
 - Elbeteko Posada Hostala-Jatetxea
 - Etxezuria Landa Etxea (Ziga)
 - Jauregia Landa Etxea (Aniz)
- Matxingonea Landa Etxea (Zoziaia-Oronoz)

- Uraren Bailarak (*)
- Donamariako Udala
- Doneztebeko Udala
 - Igantziko Udala
 - Lesakako Udala
 - Berako Udala
- Zugarramurdiko Udala
- Urdazubi-Urdaxko Udala
 - Baztango Udala

(*) Uraren Bailarak Malerrekako, Bortziriko eta Baztango ipuinak ere babestu ditu.

Urdazubi – Urdax

MONASTEGIA | ERROTA | LEZEAK

*Bidaia tu denboran atzera kondairan
beteriko herri batera, hango harriek istorio
zoragarriak gordetzen baituzte.*



Urdax - Urdazubi
Dantxarinea
OSTU GUZTIENTZAKO REDA

www.urdax-dantxarinea.com